



ARGIA

GURE ESKU-REN ESTRATEGIA BERRIA

Elkartasunetik elkarlanera

25-29. orriak



2.785 | 2022 / 07 / 03 | 4,00 €



**Bolsonarorekin
gora doa indigenen
aurkako indarkeria**

12 | BRASIL



**"Zientzia goi-mailako
kultura da"**

16 | AITZOL GARCIA-ETXARRI



**Zerk eragiten du
errelebo falta
sektorean?**

30 | LABORANTZA

KIT DIGITALA

Zure erakundearen
jarduna digitalizatzeko
finantziazioa behar duzu?

3 eta 9 langile arteko enpresa eta elkarte bat bazara,
6.000 euro arteko bonu digitala lortzeko aukera duzu. Kit
Digitala programak uztailean bonua eskatzeko epea irekiko
du, eta lametzan diru-laguntzaren eskaera bideratu
diezazukegu, hurrengo zerbitzuak eskuratu ahal izateko:



WEBGUNEA ETA
PRESENTZIA
INTERNETEN



MERKATARITZA
ELEKTRONIKOA




SARE SOZIALEN
KUDEAKETA



BULEGO BIRTUALEKO
TRESNA ETA
ZERBITZUAK

GEHIAGO JAKIN NAHI?

Gurekin harremanetan jar zaitez 943 376 716
telefonora deituz edo kaixo@iametza.eus
helbidera posta elektronikoko bat bidaliz.



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: PAULA ESTEVEZ

Iritziak

- 21 | KARMELO LANDA
- 22 | UXUE APAOLAZA
- 23 | ENEKO OLASAGASTI
- 23 | LEIRE NARBAIZA
- 24 | IÑAKI MURUA

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: SONIA ENCINAS
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



DANI BLANCO

30 | NEKAZARITZAKO ERRELEBOA

Elikadura burujabetza gero eta estimatuagoa den Euskal Herrian, gero eta baserritar gutxiago dago urtez urte. Leire Artolak ondutako erreportajeaz azaldu ditu datuak eta joera horren oinarrian dauden arazoak eta nekazal politikak. Baita belaunaldi berriei hasten laguntzen dien Trebatu programaren berri ere.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Bolsonarok daraman politikak bidea zabaltzen die indigenista eta kazetarien hilketei

Jenofa Berhokoirigoin

16 | PERTSONAIA | A. GARCIA-ETXARRI

“Zientzia baino kreatiboago, gauza gutxi”

Danele Sarriugarte

25 | POLITIKA

Alderdiak mugitu asmoz dator Gure Esku

Lander Arbelaitz

36 | HEZKUNTZA

“Ikaslearen jokabidea aldatzen saiatu ordez, ingurua aldatu dezagun”

Mikel Garcia

44 | KULTURA

Euskal literaturari jirabiraka, feminismotik eta kolektiboan

June Fernandez

46 | KULTURA | AHOTS BAT ERAUSORENTZAT

Trans genealogia bat

Jone Alaitz Uriarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Maddi Viana, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

lametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoko

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enpresek inbentarioa:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugun.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Gorroto-kanpainaren azkena

Mendebaldeko demokraziaren ustezko itsasargiak agindu du gizakiak ez duela eskubiderik egiazki berezkoa duen gauza bakarraz erabakitzeke: gorputza. Hori togadun gizonen ardura omen. Abortu seguru eta legezkoari amaiera ematea hautu arrazista eta klasista da, kaltetuenak pobretutako emakume arrazializatuak izango baitira. Hegoaldean, azken urteetan abortua despenalizatzeko neurriek aurrera egin dute Argentina, Mexiko edo Kolonbian, eta iparraldean, berriz, ultraeskuinaren aldarri nagusietakoa hauspotu dute, munduari adibide lazgarria emanez, gobernu atzerakoiek eta erlijioso fanatiko antolatuek baliatuko dutena. Baina memoriarako deia ere bada: eskubideak ez dira ematen edo kentzen; eskubideak irabazi eta defendatzen dira.

📷 JASON CONNOLLY / AFP 🔴 AXIER LOPEZ



ABORTION
IS
HEALTHCARE!

MY
BODY
MY
CHOICE



“UGTk greba eguneko langileen esnatzea lokartu nahi du”

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Lan hitzarmena berritzeko borroka betean daude langileak eta patronala Gasteizko Mercedes lantegian. Zuzendaritzak 1.200 milioi euroko inbertsioa iragarri du langileek “malgutasun” handiagoa onartzeko baldintzarekin, eta erakunde publikoen ordezkariak eta hedabide nagusiek patronalarekin bat egin dute langileak presionatzeko. Tesuinguru horretan greba historikoa egin zuten langileek ekainaren 22an: bi hamarkadan lehenbiziko aldiz produkzio katea eten zuten langileek. Ekainaren 29 eta 30erako beste bi greba egun adostu dituzte sindikatuek, ez zailtasunik gabe. Igor Guevara Mercedeseko enpresa batzordeko presidente eta ELAko kidearekin hitz egin dugu.

Espero zenuten grebaren arrakasta?

Langileen erantzunarekin oso harro nago. Gauden egoeran, enpresaren eta klase politikoaren presiopean, enpresa batzordean giroa ez denean egokiena langile guztiak bat egiteko... Harritu egin gaitu, positiboki.

Mercedesez fama du lan-baldintza onak izatearena. Zein da errealitatea?

Gu kontziente gara ditugun lan-baldintzak oro har langileek Araban dituztenak baino hobetoak direla, baina horrek ez du esan nahi gure baldintzak okertzea onartu behar dugunik. Erreferentzia gara

Arabako metalgintzaren alorrean, eta erreferentzia denaren baldintzak okertzen direnean, gainontzekoenak atzetik doaz. Mercedesezko langileen lan baldintzak defendatuz, Arabako metaleko langile guztiak defendatzen ditugu. Hori esanda, gure lan-baldintzak asko aldatu dira azken hogeitun urteetan. Lan zama edo erritmoak ez du zerikusirik ordukoarekin, eta soldatei dagokienez, gure erosten ahalmena asko jaitsi da.

Bi bloke eratu dira: UGT-CCOO batetik, ELA-LAB-ESK bestetik. Zeintzuk dira ezberdintasunak?

Ezberdintasun nagusia da guk langileen iritzia kontutan hartzen saiatzen garela, eta beraiek ez. Hilabete dela ELA, LAB eta ESK-k enpresa batzordean proposatu genuen langileen batzar irekia deitzea. UGT eta CCOO aurka azaldu ziren, Ekintza eta PIM haien atzetik doaz beti. Sinadura bilketa egin genuen orduan, langileen %50 baino gehiagok eskatu zuten asanblada, eta legeak badio ere %33a nahikoa dela enpresa batzordetik asanblada deitzeko, aurka egin zuten berriz ere. Greba egunean, seigarren gauaren eta malgutasun handiagorekin aurkako oihuak oso nabarmenak izan ziren. Egun mahai gainean dauden proposamenetan, sindikatu horiek ez daude aurka, prezio bat jartzera mugatzen dira.

Sindikatu batzuek enpresaren interesen alde egitearen beldur al zarete?

Ari dira saiatzen jada. UGTk proposamena bidali zigun aurretik deituta genituen greba egun guztiak bertan behera utzi eta Arabako Metalaren grebekin bat egiteko. Arabako Metalean ekainaren 30ean soilik dago greba deituta uda aurretik, eta gero jada irailean. UGTk greba egunean guztiok harritu gintuen langileen esnatze hori lokartu nahi du. Langileek batasuna nahi dute, mobilizazioetan hori ere nabarmena izan da. Gu saiatzen gara aintzat hartzen, baina baita ere azaltzen batasuna ez dela elkarrekin joate hutsa, baizik eta nora goazen adostea.

Erakunde publikoak enpresaren alde lerratu dira nabarmen.

Lan-hitzarmenaren negoziazioa dagoen bakoitzean errepikatzen den presioa da. Gatatzak hitz egin dute, eta jakina dagoela gatazka grebak deitzen direnean; baina baita ere eskatzen zaigunean jardunaldiak areagotzea, plusak sei urtez izoztea edo soldata KPIren arabera ez igotzea.

Mercedes Araban, Volkswagen Nafarroan... Zenbait enpresa pribatuko erakunde eta errekurtsio publikoak menpean dituztela ematen du.

Nabarmena da. Nik esan ohi dut Mercedes ez dela enpresa bat, Alemaniak Araban duen enbaxada baizik. Hor barruan nahieran egin eta desegiten dute. Uleritzen dut administrazioa arduratzea eta Mercedes bezalako enpresa batekin bertan jarraitzeko lan egitea, baina ezin du izan langileen lan-baldintzen eta dirua ematearen truk. Esperientzia horiek baditugu beste enpresa batzuetan, gerora alde egin dute eta langileak kaleratu dituzte.



HALA BEDI



Irakurri elkarrizketa osorik hemen:
www.labur.eus/UKTj

Kain-konplexua



ARITZ GALARRAGA

Ragan berri diren hauteskundearen harira entzun dut: Kolonbiako eskualde batzuk beste batzuk baino mugituagoak direla –eta, ez dakit zergatik, imajinatzen dut Kolonbiako eskualde lasaienak ere munduko ia beste edozein eskualde baino puska mugituagoak izan behar direla–. Halakoxea imajinatzen dut, hain justu, mugitua, Ukraina –bai, behingoagatik: gauza bat da aktualitateari kasu berezirik ez egitea, eta beste bat aktualitatea existituko ez balitz bezala bizitzea–. Gertatuak ikusita, badakit ez dudala ematen oso espabilatua. Baina gertaera belikoen areagotu egin dute herrialde haren interesa. Zer esanik ez irakurgaiak uztartzen baditu gaur egungo egoera gatazkatsua, eta gatazkan dauden herrialdeen literatura, egiten duen bezala Marta Rebón idazlearen azken lanak, *El complejo de Caín*, bere anaia Abel hil zuen haren izena daramana.

Ukraina-Errusia, Errusia-Ukraina harremana, azken buruan, anai-arreben artekoa baita, Nikolái Gógolek esan zuen hura: ukrainar bat ez dela errusiar bat baino gutxiago, eta alderantziz, eta ez badira gauza bera, besterik ez bada elkarren osagarri direla. Nazioei gertatzen zaiena geografiari esker esplika daitekeela ere esan zuen Gógolek. Hortik, beraz, Ukrainaren mugitutasuna: muga eremu batean kokatua, *pays-de-frontières* gisako bat genuke, Asiak eta Europak talka egiten duten lekua, mundua ulertzeko toki pribilegiatua, poliglota eta multikulturala, Odesa edo Lviv bezalako hiri kosmopoliten ariman islatzen dena. Errusiarentzat, ordea, errusiar unibertso deitu izan den horretan jokatu nahi duen paperarentzat, mehatxu da Ukraina burujabe eta europar bat. Inbasioarekin, hartara, urrundu egin da Rebón literatura errusiarra hartzen duten apalategietatik. Ez, noski, fedea galtzeraino: Vasili Grossman, Lidia Chukóvskaia, Isaak Bábel, Liudmila Ulítskaia, “indarberritu nau bereziki Irène Némirovskiyk idatzitako *Chéjoven bizitza irakurtzeak*”. Hitz idatziak maiz, ondo dakite errusiarrek hori, errealitateak berak baino balio handiagoa izan dezake eta. ●

AURREIKUSPEN FALTAREN...



...ATZEIKUSPENA.



ADUR

Mozal Legea

Otsailean Jose Ignacio Munilla apezpikua agurtzeko Donostian egin zen performancea ikusten izan zen Beatriz Goñi. Orain, zigortu egin dute identifikarazi zutenean ahoz adierazi zuelako bere NAN zenbakia. Identifikatzeari uko egitea egotzita, 700 euroko isuna jarri dio Ertzaintzak.

Esa

Esako urtegiari buruz Espainiako Gobernuak enkargatutako txostena galdu dela salatu dute. Espainiako Bide Ubide eta Kaietako ingeniariaren Kolegioari egin zion enkargua Espainiako Gobernuak, ikusteko urtegiaren bideragarritasunaz erakundeak zer zioen.

Ernai

Aurrera begirako erronkak eta asmo politikoak jasotzen dituen *Eho-tzen* ponentzia onartu du Ernaik, III. Kongresuan, boto-emaeleen %93ren babesarekin. 500 bat gazte bildu ditu ekitaldiak. “Gazte mugimendua indartu eta gazte fronte geldiezin bat osatzera goaz, gazte olatu bat”.

Beltza



ULA IRURETAGOIENA

Aurtengo arkitekturako saririk handiena, pritzker saria, Francis Kèrè-k eskuratu du. Aitortzen dut Kèrè dela ezagutzen dudan arkitekto beltz bakarra eta ezin dudala arkitekto indiar edo peruar baten arkitekto izenik aipatu, literaturan gai naizen moduan. Jaso dudan hezkuntza eta ikuskatzen dudan argitaralpen-sarea eurozentrista da, Japoniaren salbuespenarekin. Sariak garai ezberdin baten ataria seinalatzen du.

Kéréren bizitza zinemara eramateko modukoa da. Burkina Fason jaioa, argirik eta edateko urik ez duen komunitate txiki batean, eskola-lagunak hiltzen ikusi zituen. Komunitateak dirua bildu zuen bere ikasketak Berlinen jarrai zitzan arkitekto bilakatzeko. Pobrezia handian bizi diren afrikar komunitateen etorkizuna kanpoan ikasketak egitera bidaltzen dituzten seme-alaben prestakuntzan omen dago, jakintzaren bidez bizitza kalitatea hobetuko dutela sinetsita. Kéréren kontakizuna Melillako irudiekin nahastu zaizkit eta ezinegona sartu zait.

Kéré pribilegiadun arkitekto afrikarra da, baina jaioterrira itzuli den semea, komunitateak eskainitako abagunea herriri itzultzeko nahiaz. Komunitatera itzuliko da, arrakastarekin komunitatearentzako eraikin gehiago egiteko aukera emango diolako, arrakastari balio soziala eskainiz. Bere lanaren irudietan eraikitzaile afrikarrak ageri dira, emakumeak eta gizonak, eskuekin lanean. Komunitateko langileen gaitasuna ezagutu eta teknika tradizionalak eta berrituak frogatu dituzte eskola bat egiteko, tenperatu altuekin konforta eskuratzeko ikasgelak eraikiaz. Kéréren lana errepikaezina da, bertakoen jakintza eta eskuen trebakuntzarekin egina delako, eta eskuz egindako akaberen kalitatea European lortu ezina da, kapitalaren gurpilak artisautza lana akabatu duelako. Kèrèk komunitate-erakitzaile papera betetzen du, profesioa bertako norbaiti erakusteko ardura baitu, bera hil ostean arkitekturak komunitatearen bizitza kalitatea hobetzen jarrai dezan. Lezio ederrak, Afrikatik. ●




Eskuin muturrak eskerrak Macroni

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Zortzi diputatu izatetik 89 izatera pasa da bost urtez eskuin muturra Frantziain. Hori horrela, lehen aldikoz talde parlamentario bat osatu dezake Marine Le Penen RN Batasun Nazionalak, horrek abantaila andana ematen diola: lehenik eta behin, sostengu finantzario kontsekuentea. Lehen itzuliko boto bakoitzak urtero 1,64 euro sarraraziko dizkio; hots, bost aldiz 7 milioi euro banatuko dizkio estatuak alderdi xenofoboari –diru publikoa, herritarrona–, RN diputatuei bost urtez banaturiko soldatez gain –beste 16 milioi euro–. Bulego zein bilera gela, azpiegitura askoz gehiago ukanen ditu ere, gertutasuna garatzeko balioko diotenak. Bere proiektua zabaltzeko espazio eta denbora gehiago ukanen du Legebiltzarrean berean –eta hortik oihartzun handiagoa jendartean–. Ideia diskriminatzaileen eta gorrotodunen hedapenari sekulako bultzada da talde parlamentarioa osatu ahal izana.

RNaren bilakaera esponenzialak osagai bat baino gehiago dauzka oinarrian: Le Penen diskurtsoaren eztitzea; zailtasun sozioekonomikoa eta etsipena; *mainstream* komunikabideek osaturiko giro aproposa; Macron presidenteak eskuin muturrari begira daukan jarrera; eta abar. Goazen hurbilgotik begiratzera azken horri. Eskuin muturrari bidea mozteko “fronte errepublikarra” osatzeko urgentzia goraiatu zuen Macronek presidentetzarako bigarren itzuliko Le Penekilako buruz burukoan –baita lortu ere, tartean hautesle ezkertiar anitzei esker–. Ez du hori bultzatu Legebiltzarretarako bozketan. Hein berean kokatu ditu bi muturrak, ezkerre zein eskuina: biak “desordena”, biak “arrisku”. NUPES ezkerreko batasunak irabaziz gero, *gorriak* boterera iritsi eta nahasmendua hedatuko zuten instituzioetan. Horra zabalduko mezua. 1981ean, Mitterrand sozialistaren garaipenak “tanke sobietarrak [Parisko] Concorde plazara sartzea” eraginen omen zuen bezala... RN eta NUPESen artean izan da bigarren itzulia 62 barrutitan, eta Macronek alderdiak bakarrik seitan du NUPESen alde egitera deitu eta eskuin muturrari botorik ez emateko oharra hamabitan plazaratu du –beste 38tan ez du deus egin, eta seitan zuri bozkatzera deitu du–. Finean, barruti horietatik gehienetan eskuin muturra atera da garaile. Parlamentuan alderdi ttipi izatetik oposizioako talde nagusi izatera pasa da Le Penen alderdia, eta hori tarte biziki laburrean: bost urte iraun duen Macronek agintaldi bakarrean. ●



200 euroko hileroko laguntza emango du Eusko Jaurlaritzak seme edo alaba bakoitzeko (3 urte betetzen dituen arte). Gazteentzako maileguak eta haur-eskolen doakotasuna ere iragarri ditu, demografiari lotuta martxan jarriko dituen 36 neurriren artean.

22

urteko espetxe zigorra ezarri diote Hondurasen Desa hidroelektrikako lehendakari exekutibo zenari, Roberto David Castillo Mejfari, Berta Cáceres ekintzaile ekologistaren hilketan parte hartzeagatik.

10.000

hektarea inguru erre dira suteen ondorioz, Nafarroako Gobernuaren arabera. Espainiako Gobernuko presidentek iragarri du akordio bat egingo dela suteek kaltetutako lurraldeak hondamendi-eremu izendatzeko.

“Aurreikuspen okerrenak gaindituz, Nafarroako Gobernuaren curriculum zirriborroak Filosofiari gutxieneko eskola ordua ezarri dio”

NAFARROAKO 150 IRAKASLE

“Filosofiaren eta etikaren alde” idatzia sinatu dute 150 irakaslek.

2022-06-22



“EZ DAGO AEB-ETARA BEGIRATU BEHARRIK HARROTASUNA EUSKAL HERRIAN BORROKA IZAN ZELA ETA BADELA JAKITEKO”

OZEN! LGTB

2022-06-24

“Jaurlaritzak lehen arreta desegin eta gainerako asistentzia-mailak prekarizatu nahi ditu, pribatizazioaren, zerbitzu publikoen aurkako erasoaren eta osasun-aseguru pribatuen negozioaren bidez”

SINDIKATUAK

“Lehen arreta desegiteari ez, Osakidetza salba dezagun” lelopean, milaka lagun batu dira Bilbon, SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek deituta.

2022-06-26

TEKNOLOGIA

Korapilo kosmikoa



DIANA FRANCO

Kosmos dokumentala ikusten hasi naiz, berriro. Espinoza Erdi Aroko filosofoaz hitz egiten dute, erlijioaz zuen ideiaz, kosmosaren ideiatik oso gertu: armoniaz beteriko sistema bat, natuaren harreman guztiak jasotzen dituen. Kosmosa ulertzea zen Espinozarentzat xedea, ulermenak askatasuna dakarrela iritzita. Eta askatasunerako bidea kosmosa ulertzean bilatu dezakegu.

Ulertzearen bidea ez da erraza, eta askotan gizakiok gauzak zailtzeko joera dugu, gure interesen onurarako. Ez ditugu ezagutzak partekatzen, ezagutzak babesten ditugu, modu konplexuan espresatzen gara... eta jokabide horiekin kosmosa gero eta korapilatsuagoa bilakatzen dugu. Korapilo horiek ulertzeko helburuz, gero ikasketa berriak sortzen ditugu.

Digitalizazioaren teknologiek badute kosmosa ulergarriagoa egiteko zenbait potentzial, baina baita berau gehiago korapilatzeko arrisku handiak ere. Zentzu horretan, gizakiok sortzen gabiltzan "korapilo kosmiko" horietako batzuk askatzeko ikasketa eremu anitz dago eta horietako bat "antropologia digitala" da. Wikipediaren arabera, antropologia gizateriaren ikasketa da. Gizakion jokabideez, biologiaz, kulturez, hizkuntzez arduratzen da. Gaur eta iraganean. Antropologia digitala gizakion eta teknologia digitalaren arteko harremana aztertzea litzateke, eta antropologia eta teknologia gurutzatzen diren hainbat eremutara zabaltzen da.

Jokabideak bideratu ditzaketen teknologia digitalek, gorpuztak konkistatzen dabilen teknologia digitalek, kulturaren ideia eragiten ari direnek, hizkuntzaren ideia aldatzen ari direnek... gure kosmos garaikidea hobeto ulertzeko baino, berau eraldatzeko eta korapilatzeko joera dutela uste dut. Beraz, gustura hartzen ditut bizi ditugun garaia ulertzeko ikasketak, antropologia digitala kasu. Ongi etorriak korapiloak desegitera eta modu ordenatuagoan eta ulergarriagoan ezagutza sortzera eta partekatzea datozenak. ●

NAZIOARTEA



REUTERS / KAREN TORO

Ekueadorren berriz ekinean

AXIER LOPEZ

Bi aste bete dira Ekueadorren Nazionalitate Indigenen Konfederazioak (Conaie) grebara eta mobilizatzaera deitu zuenetik. Lehen protesta masiboa da Guillermo Lasso presidentea 2021eko maiatzean boterera iritsi zenetik.

1986an sortu zen Conaie eta orduan altxamendu sozialen buru izan da. Pablo Ospina kazetariak dioenez, nahiz eta batzuetan barne-gatazkak eta apustu politiko kontrajarriak izan, indigenen mugimenduaren erakunde nagusiak egun hauetan berriz ere erakutsi du bere indarra eta indigenak ez diren sektoreak elkartzeko gaitasuna -ikasleak, mugimendu sindikalak, feministak... indigenek hasitako protestara batu dira-. Conaie sare deszentralizatua da, gutxienez 2.000 antolakunde biltzen ditu eta bere pisu politikoari eusten dio Pachakutik mugimenduaren bitartez.

Ekueadorreko gobernu neoliberalen aurkako eragile nagusietako bat izan da, baita ezkerreko oposizioa ere Rafael Corrales gobernu aurrekoaren garaian, batez ere nekazaritza, uraren erabilera eta estruktibismoaren aurkako gaitan. Yaku Pérez Guartambel da bere presidentegaia, 2021eko hauteskundeetan bigarren itzulira pasatzeko zorian egon zena. Lasso eta Perez oso parekatuta izan ziren lehen itzulian: Lassok botoen %19,74 lortu zuen eta Yaku Perezek %19,39.

Eguneko protestak 2019an hasita-

koen jarraipena dira, Lenin Moreno presidentea erregaien gaineko dirulaguntza kentzen saiatu zenean piztu-takoak. Gaurko eskaera nagusiak dira erregaien prezioa murriztea eta lau milioi nekazari-familiak bankuekin dituzten zorrak barkatzea. Oinarrizko produktuei prezioak kontrolatzea, nekazarien lan-baldintzak hobetzea eta meatzaritzaren hedapena geldiaraztea ere eskatu dituzte.

Inflazioa eta prezioen igoera eten-gabeak diren arren, gobernuak dio ez dagoela protestarako arrazoirik, eta bere erantzuna izan da espazio publikoaren militarizazioa eta sei probintzian salbuespen-egoera ezartzea joan den larunbatera arte.

Errepideak eta Quito hiriburuko sarbideak blokeatu dituzte manifestariak. Poliziekin izandako liskarretan sei manifestari hil dituzte (asteburuko zifrak) eta ehunka zauritu eta atxilotu. Horietako bat Conaieko presidente Leonidas Iza da; lanuzte nazionalako bigarren egunean atxilotu zuten. Lassok berak ez du inoiz ezkutatu haren aurkako gorrotoa. Hala zioen abenduan: "Leonidas Iza anarkista bat da, estatuko botere guztiarekin egingo diogu aurre. Kartzelan amaituko du".

Jatorrizko herri eta nazionalitate indigenak buru, protestek erakutsi dute, berriz ere, politika ekonomiko baztertzaila eta elitistarekiko haserre orokortua. Eta hori ez da neurri txikiekin baretzen. ●

Haserrea eragin du Melillako sarraskiak

ECUADOR ETXEA

EUSKAL HERRIA / 37 pertsona hil ziren ekainaren 24an Maroko eta Espainaren arteko mugan. Melillako sarraskia estatuek bultzatzen duten "nekropolitikaren" ondorio dela salatu dute Euskal Herriko hainbat txokotan egindako protestetan (irudian, Bilbo). "Ehorzleak Marokoko eta Espainiako gobernuak dira, hesiak altxatu eta hedapen polizial-militar oso bat antolatzen dutenak, bizitzeko eta errepresioaren kontura gure muga sakratuak urratzea eragozteko", adierazi du SOS Arrazakeriak.



Zonifikazioa

Hordago! herri ekimenak dei egin ditu Nafarroan "ez-euskaldun" izendatu duten eremuko herritarrak, urriaren 22an Tuteran egingo den manifestaziora, "Nafarroako euskaldunen hizkuntza eskubideen alde, gure hizkuntza askatasunez bizitzeko aukerak tratatzen dituen zonifikazioaren aurka".

Euskara sarean

Sarean haurrentzat euskaraz dauden ikus-entzunezko baliabideen zerrenda osatu du Pantailak Euskaraz ekimenak. Euskal Encodings eta ERA webguneak, youtubeko euskal kanalak, ETB3ko Hiru Kluba aplikazioa eta Netflix eta Filmin streaming plataformetan dauden euskarazko produktuak zerrendatu ditu.

Currilingua

Korsikera sostengatzea helburu, Korrikaren funtzio eta filosofia bera duen Currilingua ekimena antolatu du Korsikan Parlemu Corsu elkarteak. Bigarren edizio hau ekainaren 26an abiatu da Aleriatik eta uztailearen 6an helduko da Bonifacio hirira, 110 kilometro eginda.

AUTOKTONOEI BEGIRA BOLSONAROK DARAMAN POLITIKAK BIDEA ZABALTZEN DIE INDIGENISTA ETA KAZETARIEN HILKETEI

Dom Phillips britainiar kazetaria eta Bruno Pereira autoktonoekin zebilen antropologoa tiroz hilik atzeman dituzte Brasilgo Vale do Javari territorio indigenan. Lur-jabe handiek, oihangintzako zein sektore estraktibistako enpresek eta ezkutuko arrantzan dabiltzanek autoktonoen lurretan bideratu aktibitate legalen eta ilegalen kontra jardun izan dute. Trabagarriak zitzaizkien batzuei eta desagerrarazi egin dituzte. Jair Bolsonaro presidenteak berak ere hastio ditu autoktonoak zein haien defendatzaileak, eta boterean denaz geroztik biderkatu dira horien kontrako indarkeriak, nonbait zigorgabetasuna bermatzen dielako hobendunei.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Ez zuten bizi-keinurik eman ekainaren 5az geroztik eta ekainaren 17an eta 18an baieztatu du Brasilgo Poliziak: aurkituriko gorpuk Dom Phillips kazetari britainiarrarena eta Bruno Araújo Pereira antropologoarena dira. Amazoniaren bihotzean gertatu dira erailketak, Javari lur indigenetan.

Pereira 2010ean sartu zen Brasilgo autoktonoen eskubideen eta lurren defenditzen dabilen FUNAI egitura publikoan. Laster murgildu zen, pasioz, bakarturiko eta gure zibilizazioarekin kontakturik ez duten herri indigenetan, eta 2018an izendatu zuten herri indigena bakartuen departamenduaren koordinatzaile –urte bakarrarentzat, ordea, Jair Bolsonaro Brasilgo presidenteak postu horretatik kanporatzeko manua

emanik-. Orduz geroztik Javari Ibarreko Herri Indigenen Batasunean (Univaja) zebilen borrokan eta bere gertukoek ez dute duda izpirik: autoktonoak defenditzeagatik hil dute. Arrazoi berarentzat hil dute ondoan zuen lagun kazetaria. Phillips *The Guardian* egunkarian zebilen, baina urte bateko lan-geldialdian zen, Amazoniaz eta bertako indigenei buruz liburu bat idazteko. "Nola salbatu Amazonia" titularra jarria zion bukatzekotan zuen liburuari. Mendebaldeko herri aberats bateko egunkari ezagun bateko kazetari zuri bat hil izana esanguratsua dela dio Eliane Brum Brasilgo idazleak: "Zigorgabetasunaren bermea helarazten diete Bolsonaro eta haren gobernuak oihanaren eta bertako herrien kontrako krimenak bideratzen dabiltzanei". Bai, 2018az geroztik Ama-

zoniaren kontrako politika gogortu eta okertu egin da. Poliziaren bertsioa gezurtatuz, Univaja egiturak zehaztapen bat eman nahi izan du agiri bidez: "Ez daude bakarrik bi hiltzaile, hor talde antolatu bat dago, hilketa hastetik buru planifikatu duena".

Kontestu orokorrago batean kokatu behar direlako azken hilketa horiek. "Bruno Araújo Pereira eta Dom Phillipsen desagerpena ez da ustekabea; hasieratik Bolsonaroren gobernuaren FUNAI Indioen Fundazio Nazionalak eraman politikaren ondorioa da" irakurri dezakegu *The Intercept* komunikabidearen *Dossie inédito mostra como Bolsonaro cumpriu a promessa de 'foiçada no pescoço da FUNAI* ("Dosier argitaragabe batek azaltzen digu nola Bolsonarok bete duen 'FUNAI sastakatzeko' promesa").



IMAGO / ISABELLA FINHOLDT

HASERREA, EZINTASUNA ETA PENA

Protestak izan dira kazetariaren eta antropologoaren hilketari salatzeko. Indigenen alde zebiltzan borrokan, lanbidea ere horretara bideratuz. Nazioartean bezala, herri horietan ere ezintasuna eta samina eragin ditu desagerepenak.

Bolsonarok autoktonoei bideratzen dizkien herra, irain eta mespretxua ezin ukatuak dira eta hori aspalditik. 1998an diputatu zela, ondokoa adierazten zuen: "Zer nolako pena Brasilgo zalditeria ez dela amerikarrena bezain eraginkorra izan: haiek bederen haien indioak deusestatzen lortu zuten". Azpi-kategoria-ko pertsona gisa kontsideratzeaz gain, hastio ditu ondoko arrazoiarentzat ere: logika kapitalista nahi bezala aitzina eramateko bidean traba ditu; ez ditzake Brasilgo lurak nahi bezain beste usiatu.

Lurak estatu federalarenak baldin badira ere, bertan direnen oniritzia bermatzea eskatzen du Brasilgo Konstituzioak, eta horien ustiapena bertan bizi diren autoktonoei mugaturik da. Betebehar hori oztopo du Bolsonaro eta bide batetik zein bestetik saihestu nahian dabil. Behingoan, inolako trabarik gabe lur horiek *Fazendeiros* izendaturiko lur-jabe handiei edota meatzari-tzakako eta oihaneko sektoreko enpresa

Legea eta Justizia traban dauzkala, 'Nova FUNAI' estrategia gauzatzen dabil Brasilgo presidente Jair Bolsonaro


handiei bideratu ahal izateko. Eskerrak Amazoniarentzat eta gu guztiontzat, aldaketa hori zekarren PL 191/2020 legearen kontra agertu zen urte hastapenean legebiltzarra.

Beste aldaketa bat ezin izan du bururaino eramane: lur indigenen zehazteko eta babesteko ardura FUNAIren eskuetatik Laborantza, Hazkuntza eta Hornidura ministeriora pasatzea.

Legea eta Justizia traba dauzkala, *Nova FUNAI* estrategia gauzatzen dabil Brasilgo presidentea: autoktonoen eskubideen eta lurren defenditzeko 1967an sorturiko FUNAI barnetik suntsitzea. Egitura horri "lepo-giblean golpe bat" eman nahia adierazi zuen 2018ko hauteskundearen kanpainan, eta horretan dabil.

FUNAI: MILITAR, EBANJELISTA ETA LUR-JABE HANDIEN ESKU

Boterean denaz geroztik, batzuk kanporatu eta beste batzuk sarrarazi... traba izan beharrean, bere aldekoak ditu orain FUNAIko arduradunak. Adibidez, Ricardo Lopes Dias kokatu berri du barkartuak diren autoktonoen koordinaziozko goi-karguan. Nor den bera? Misiolari ebanjelista bat, 1997tik 2007ra



INDIGENEN ALDEKO KAZETARITZA

The Guardian egunkariarentzat aritu izan da kazetari lanetan Dom Phillips. Amazonia eta bertako herri indigenei buruzko liburu bat idazten ari zen azken hilabete hauetan. 57 urte zituela hil dute. Argazkian ageri da Jair Bolsonaro-ri galdera bat pausatzen ari.

MARCOS CORREA

AEBetako New Tribes Mission egiturarentzat lanean ariturikoa. Iragan beltza du egitura honek Brasilen, tartean, eritasun batzuk sarrarazi izanagatik eta jarrera inposatzaileagatik. "'Otsoa arditegira sarraraztearen' estrategia honi esker, herri autoktono batzuen borondatearen kudeaketa kontrolatu dezake Bolsonaro", irakurri dezakegu *misea-jour.eu* webguneko *Pourquoi Jair Bolsonaro insulte les populations autochtones* ("Zergatik Jair Bolsonaro herri autoktonoak iraintzen ditu?") artikuluan.

Lopes Dias ebanjelistarena ez da kasu isolatu bakarra, tendentzia orokor baten parte da –hilabete honetan plazaraturiko 210 orriko *Fundação anti-indígena. Um retrato de FUNAI sob o governo Bolsonaro* ("Fundazio anti-indigena. Bolsonaro-oren gobernuaren peko FUNAIren potreta bat") ikerketa-lanean xeheki aurkezturikoa-. Indigenistas Asociados eta Inesc elkarteek publikaturikoa da eta aktualitateak horretara beharturik, azken puntan "Bruno Pereira, presente! Dom Phillips, presente!" idatzi behar izan dute lehen orrian.

"Zartagailu orendun bat aurkitu dugu FUNAI-n eta ondoko galdera datorkigu: zer egin dezakegu orain, herri indigenen, funtzionarioen, batasunaren eta

Ofizialki, lur indigenen 263 bereganatze ilegal –lapurketa–kontatu zituzten 2020an, Bolsonaro boterera helduz geroztik %141 emendatu dira

biziaren izenean? Horrela segituz ez delako gehiago inor izanen", dio ikerketaz arduratu den Leila Saraiva antropologo eta Inesc-eko aktibistak.

2019ko uztailean Bolsonaro egitura honen presidente izendatu zuen Marcelo Xavier. Polizia federala, zuria eta meatzaritzako sektoreari eta laborantza negozioari hertsiki lotua da gizon boteretsu hori. Bera dugu IN09 aginduaren

oinarrian. Golpe handia izan da legedian bideraturiko aldaketa hori: oraindik homologatu gabeko eremu indigenak jabetza pribatuari ireki ditu –guztira 237 territorio, hau da, 9,8 milioi hektarea!-. "1988ko Konstituzioaz geroztik indigenen alde engaiaturikoak genituen FUNAIko lehendakari izan. Lehen aldikoz, herri indigenen aurka den pertsona bat dugu presidente, eta FUNAI anti-indigena bihurtzeaz gain, herri hauen eskubi-deen aurka doazen politiken gauzapena dakar", Deborah Duprat juristaren hitzetan –prokuradoreorde izandakoa da eta berak idatzia du ikerketa-txostenaren hitzaurrea–.

Autoktonoen aldekoak izan beharrean, hauen desagerpena nahi luketenek dute ia FUNAI osoa kontrolatzen. Eskualde mailako 39 koordinazioetatik bitan soilik da funtzionario bat buru, besteetan militar edo poliziak dira. Hori aski ez balitz bezala, diru laguntzak ere moztu dizkio egiturari gobernu federalak. Gehiegi mugituz gero, indigenek eta hauen alde dabilzanek mehatxuak eta zigorrak dituzte ordainsaritzat –baita heriotza ere Bruno Pereira zenari gertatu bezala–.

Indigenen kontrako bortizkeriak gora egin du eskuin muturra boterean



JOAO LAETA/AF

ANTROPOLOGO ESTIMATUA

Indigenen eskubideen eta lurren defenditzeko sorturiko FUNAI egituraren ariturikoa da Bruno Pereira. Bolsonaroen gobernuak trabagarritzat zeukala, 2019an kanporatu zuen egitura publikotik. Indigenen alde segitu izan du, azkenik Javari Ibarreko Herri Indigenen Batasunean (Univaja) inplikatur.

denaz geroztik. Brasilgo Lurraren Batzordeak bideratu inkesta batek ondorioztatu berri du: azken 35 urteetan izandako urterik gatazkatsuen izan zen iazkoa eta Brasilgo landa eta oihan eremuetako luraren inguruko gatazketan hildakoen kopurua %75 emendatu zen 2020 eta 2021 bitartean. Conselho Indigenista Missionário (Cimi) elkarteak ere alarma gorria pizturik du: ofizialki, 263 lur bereganatze ilegal –lapurketa– kontatu zituzten 2020an eta 2019an 256 –Bolsonaro boterera helduz geroztik %141 emendatu ziren–.

FUNAIko eskualde mailako 39 koordinazioetatik bitan soilik da funtzionario bat buru, besteetan militar edo poliziak dira

"Inbaditzaileak, oro har, egurgileak, zurginak, legez kanpoko ehiztari eta arrantzaleak, abeltzainak eta lur-garraiatazaileak dira. Lurrak inbaditzen dituzte egurra legez kanpo eskuratzeko; ibai osoak hondatzen dituzte urre eta beste mineral batzuen bilatzeko; deforestazioa areagotzen dute; eta larreak osatzeko eremu zabalak erretzen dituzte", dio Cimi elkarteak. Gobernu federalaren eta FUNAI egiturako buruen babesa ukanik ez da harrigarri inbaditzaileak inoiz baino gehiago izatea. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Aitzol Garcia-Etxarri

EZAGUTUZ ERALDATU



ZIENTZIA BAINO KREATIBOAGOA DEN GAUZA GUTXI IMAJINA DEZAKET



Aitzol Garcia-Etxarri zientzialaria da. Baina beste mila saltsatan ere badabil. Harentzat, ikertzea bezain garrantzitsua da ikerketaren emaitzak gizartera zabaltzea. Beraz, ez zaitez tela kezkatu nanopartikulak zer diren ez baldin badakizue: argi asko azaldu dizkigu, kontzeptu horixe eta beste hamaika kontu interesgarri elkarrizketa honetan.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO

Donostia International Physics Center-en (DIPC) gaude. Zer da?

Ikerketa-zentro bat da, 2001ean sortua, eta berezia da. Ikertzeaz aparte, baditu beste helburu batzuk. Adibidez, dibulgazioarekin konpromiso handia daukagu, eta ekitaldi pila bat antolatzen dugu arlo horretan. Bestalde, niretzat oso garrantzitsua dena, Euskal Herriko zientzia katalizatzekeo sortu zen. Horretarako, bisitari-programa bikain bat daukagu, urtean ehundik gora bisitari jasotzen dugu, eta horrek sekulako eragina izan du bai gure emaitzetan, bai gure kulturari: azken finean, oso zentro bizia da.

Bertako ikertzaile guztiak zarete fisikariak?

Fisikaren arloa lantzen dugu denok, hori egia da. Hala eta guztiz ere, gaur egun ikerketa nahiko kontu multidiziplinarra da arlo guztietan, eta orain egiten dugun ikerketarako ez litzateke nahikoa izango fisikariekin bakarrik; beraz, denetatik dago hemen gure inguruan. Ni, adibidez, telekomunikazioetan ingeniaria naiz –gero doktoretza fisikan egin nuen– eta ni bezala biologoak daude, kimikari pila bat... Orain, esaterako, ingeniari-tza biomedikoa ikasitako doktoretza-ikasle bat, Teresa Celaya, dago nire ikerketa-taldean.

Noiz iritsi zinen zu zentro honetara, eta zergatik?

2005ean AEBetara joan nintzen karrera amaierako proiektua egitera, Colorado estatuko unibertsitate batera. Printzipioz doktoretza ere han egin behar nuen, baina azkenean erabaki nuen ezetz.

Nolatan?

Argi ikusi nuen etxera itzuli behar nuela. Tripek esan zidaten. Amona gaixo jarri zen, ni armairutik ateratzen ari nintzen garai hartan... Erabaki pertsonala izan zen guztiz. Hemen hainbat aukera aztertu nituen doktoretza egiteko. Nafarroako Unibertsitatean ikasi nuen, han pare



Aitzol Garcia-Etxarri

PASAI-SAN PEDRO, 1981



Fisikan doktorea eta ikertzailea Donostia International Physics Center-en (DIPC). Gaur egun, ikerketa-talde baten burua da: argiaren eta materiaren arteko elkarrekintza aztertzen dute. Zientzia-dibulgazioko hainbat proiektutan dihardu, hala nola DIPCren *Zinema eta zientzia* zikloan, eta irratikolaborazio bat egiten du hilero Euskadi Irratian. Gizon zis homosexual gisa identifikatzen da, eta nabarmen konprometituta dago LGTBQ+ kausarekin, zientziaren arloan nahiz hortik kanpo.

bat aukera nituen, baina lagun baten bitartez Javier Aizpurua ezagutu nuen, eta aukera sortu zitzaidan, bera eta Pedro Miguel Etxenike zuzendari nituela, doktoretza DIPCn egiteko. Bide horri heldu nion azkenean.

Zein zen zure tesiaren gaia?

Egin dudan ikerketa guztiaren atzean beti egon da gai nagusi bat dena biltzen duena: materiaren eta argiaren arteko elkarrekintzaren ikerketa. Azaltzen saiatuko naiz. Adibide erraz-erraz bat jartzearren, gu oraintxe bertan mahai batean eserita gaude, eta zuk zure parean mahai hau ikusten duzu eta marroia dela ere ikusten duzu. Hori zergatik gertatzen da? Ba eguzkiaren argi-izpiak gugana etortzen direlako marra-lerrotan, mahaiaren aurka talka egin, eta zure begietara iristen direlako. Talka egitean kolore batzuk xurgatu egiten dira, eta beste batzuk islatu eta zure begietara iristen dira. Argi-izpien eta mahaiaren arteko talka da materiaren eta argiaren arteko elkarrekintza, eta hortik dato, adibidez, gure bizitzan ikusten ditugun koloreak, baita formak eta itzalak ere, eta beste hainbeste adibide. Gure arloan ikertzen duguna hau da: zer gertatzen den elkarrekintza horrekin objektuak mahai baten tamainakoak izan beharrez txiki-txikiak direnean. Objektuak txikiagotu heinean, fisikaren arauak aldatzen doaz pixkanaka, mundu kuantikora iritsi arte, eta atomoetara iristen garenean gauzak gutziz ezberdinak dira.

Mundu kuantikoa ikertzen duzue?

Ez guztiz. Fenomeno kuantikoak bete-betean agertzen dira materiak atomo gutxi batzuen tamaina daukanean –sinplifikatzen ari naiz, baina gutxi gorabehera hori esan genezake-. Materia hori baino pixka bat handiagoa ikertzen dugu guk: nanopartikulen erantzun optikoa.

Nanopartikula baten tamaina zein izango litzateke?

Nanometro bat da 0,000000001 metro. Zerbait errazagoa edo esanguratsuagoa esatearren, ile bat hartuko bagenu, horren diametroa baino 10.000 aldiz txikiagoa da nanometroa.

Honi buruz hitz egin ahala irribarrez ari zara. Zerk erakarri zintuen zientziatik?

Txikitatik asko aspertu izan naiz. Oso kuriooa izan naiz, baina behin jakin-mina asetuta, berriro aspertzen nintzen, eta beste zerbait egin nahi izaten nuen. Bestalde, zientziak asko erakarri ninduen eskolako garai batetik aurrera, eta argi neukan zientziarekin lotutako zerbait ikasiko nuela. Hasieran matematikak egin nahi nituen, gero fisika. Azkenean, kontatu zidaten ingeniartzarekin dirua ere irabaz nezakeela [barreak] eta hortik jo nuen. Baina ingeniartzan berdina pasatzen hasi zitzaidan; hasieran, topera nengoen, baina laugarren edo bosgarren mailara iristerako aspertu egin nintzen; dena zen berdina: protokoloak, zenbakiak... Garai hartan bi irakasle izan nituen, Pedro Crespo eta Hector Mancini, biak zientzialariak, eta haien bidez konturatu nintzen ikerketan behintzat galderak infinituak zirela.

Jakin-mina ase arren beti egongo ziren jakin-min berriak.

Bai. Eta badago beste faktore bat, orain argiago ikusten dudana zerbait, garaian konturatzen ez banintzen ere: ez nuen nire burua ingeniari bezala ikusten. Begiratzen nien beste ingeniariari, eta esaten nuen: ni ez naiz horiek bezalako, eta ez dut horiek bezalako izan nahi.



Heterosexual gisa identifikatzen ez diren ikasleen artean, %50ak egunero jasaten du bullinga; egunero. Azkar esaten da"

Nolakoak ziren, ba?

Zer esango dizut: gizonak, zuriak, heterosexualak, serioak, trajedunak, eta abar. Erreferenteen kontua askori gertatzen zaigu, emakumezkoen ere bai jakina. Nire kasuan, gizonezkoa izanik, ingeniari ondo, baina homosexuala izanik beste arazo bat neukan. Gainera, Nafarroako Unibertsitatean nengoen, eta hor ere bazeuden tirabira batzuk. Edonola ere, doktoretza egiten hasi nintzenean, ikusi nuen beste geruza bat. Ingeniartzaren helburua gauzak sortzea da: gauza horiek aplikatzeko modukoak izan behar dute, eta salgarriak. Teknologia garatzen irakatsi ziguten karreraren, eta doktoretza egiten hasi nintzenean deskubritu nuen zer zen, ez teknologia garatzea, baizik eta ezagutza garatzea, eta hor guztiz



liluratu nintzen. Agian ez nintzen guztiz kontziente ezagutza ere sortu behar dela. Eta hor, misterioaren parean zaudenean, ez zara sekula aspertzen.

Doktoretzaren ostean, doktoretza-ondokoa AEBetan egin zenuen, Stanford unibertsitatean. San Frantziskon bizi izan zinen lau urtez. Zer moduz?

Egia esan, San Frantziskoko lehenengo urtea zoragarria izan zen. Askatasun osoa sentitu nuen, lagun pila bat egin nituen. Behar nuen guztia neukan. Baina emigratzea ez da erraza. Gauza bat da toki berri batera joatea eta oso ondo ibiltzea, parrandan eta lanean, baina urteek aurrera egin ahala errutina batean sartzen zara, eta estatubatuarrak bestela bizitzen hasi behar izan nuen, ez zegoelako beste aukerarik.

Eta ez zitzaizun gustatzen?

Azken batean, beste kultura bat da, eta beste kultura batera adaptatzea oso gogorra da; familia hain urruti edukitzea ere bai. Horregatik, gaur egun etorkinekin hitz egiten dudanean, hemen lagun asko ditut etorkinak, biziki miresten ditut, eta ez dut ulertzen nola jendeak ez duen ikusten zer mailatako sakrifizioak egiten ari diren hemen egoteko eta

gu zer komodo bizi garen. Eta, harira itzulita, AEBetako kultura oso gogorra da, zoragarria gauza batzuetan, gurea baino dibertigarriagoa, baina lehia oso bortitza da, exigentzia-maila brutala da, eta mundu akademikoan ere bai.

Aitzol, zu ez zara laborategian itxita bizi den zientzialari bat.

Utzidazu estereotipo hori puskatzen. Askotan uste izaten dugu zientzialariak oso karratuak direla, gauza oso zehatzak egiten dituztela, kreatibitate gabeko jendea direla, eta ideia hori guztiz okerra da. Azken finean, zientzia baino kreatiboagoa den gauza gutxi imajina dezaket. Espikatuko dizut zergatik. Lehen hitz egin dugu ezagutzaren inguruan; ba oinarrizko zientziaren helburua da ezagutzen ez diren gauzak ezagutaraztea, edo deskubritzea. Hori egiteko erreminta batzuk dauzkagu: matematika, fisika... Baina ezagutzen ez duzun hori deskubritzeko garaian, kreatibitate ez baldin badaukazu, ezin duzu deus ere egin. Hortaz, zientzia egitasmo oso sortzailea da, eta kulturaren funtsezko parte. Askotan ikusten ditugu kultura eta zientzia gauza bereziak balira bezala, baina –eta kultura asko gustatzen zaidan arren– oso argi daukat zientzia goi-mailako kultura

dela. Esango nuke zientzian gabiltzanok nahiko presente daukagula hau guztia, eta oso arraroa da kultura gustatzen ez zaion zientzialaririk aurkitzea.

Zer erantzungo zenidake zientziaren objektibotasunaz galdetuko banizu?

Ez dakit zientzia guztiz objektiboa den edo ez, hori filosofo bati galdetu beharko zenioke, arraroa badirudi ere. Denborarekin ikasi dut horrelako kontzeptuak errespetatzen. Gai horri buruz hitz egiteko, egia existitzen ote den eztabaidatu beharko genuke. Edonola ere, badira gauza objektibagarriak, eta zientziak horiek ikertzen ditu. Egiak aurkitu ditzakezu, egia partzialak, inoiz ez dira egia borobilak. Zientzia etengabe ari da eraikitzen. Ez dut uste inoiz iritsiko garenik egia absolutu batera. Baina dena behin eta berriz konprobatzen da zientzian. Azkenean, zientzia oso sinplea da: guztiok egiten dugu egunero. Nik boligrafo hori hartu nahi baldin badut eta gerturatzen baldin badut eskua eta ikusten badut ez dudala hartzen, zerbait gaizki dabilela ikusiko dut, edo behin eta berriz eskua luzatuta boligrafoa hartzen baldin badut, berriz, hortik objektibatu dezaket boligrafoa hor dagoela, eta nire eskuak har dezakeela. Zientziak

egiten duena hori da, azkenean. Hipotesi bat dago airean, ideia bat; guztiok ditugu hipotesiak gauza guztien inguruan. Zientziak egiten duen gauza bakarra da hipotesi hori hartu, frogan jarri, eta ikusi funtzionatzen duen edo ez. Eta, ez hori bakarrik, behin eta berriz frogatzen du ea hipotesi hori egia den ala ez.

LGTBIQ+ komunitatearen ikusgaitasunaren alde diharduzu hainbat egitasmotan. Zergatik da garrantzitsua ikusgaitasuna?

Lehenengo eta behin, eskoletan bullyingaren eta homofobiaren asuntua tratatzen dugunean, askotan pentsatzen dugu gaitasuna dagoela, gauzak hobera doazela, inpresio horrekin bizi gara. Ba gauzak ez dira horrela. Zenbakiak ez dakizkit buruz, baina Espainiako COGAM elkarteak [Madrilgo LGTB+ kolektiboa] ikerketa bat egin zuen 15 eta 25 urte arteko gazteen artean homofobiaren inguruan. Emaitzak izugarriak dira. Heterosexual gisa identifikatzen ez diren ikasleen artean, %50ak egunero jasaten du bullyinga; egunero. Azkar esaten da. Nik ere ez nuen jasan egunero halakorik, baina gaur egun, dirudienez, horrela

da. Horiematik %42ak ez zuen inongo laguntzarik jaso eskolen aldetik. %5ak ikasketak utzi zituen. Suizidio-kopuruak ikaragarriak dira. Hortik hasi beharko ginatke: eskoletan asko sufritzen dugu. Eta gero, arazo horiek, bullyinga eta homofobia, helduarora eramaten ditugu. Horrek guztiak ondorioak ditu gure bizitzan.

Eta zientzialarien komunitateari erreparatuta?

Emakume zientzialarien kasuan, feminismoak egindako lanari esker, askoz ikerketa sakonagoak egin dira, eta oso oso argi ikusten da karreraren progresioan non erortzen diren, non alde egiten duten zientziatik. Ba gurekin berdin-berdina pasatzen da: ez bakarrik LGTBIQ+ komunitatearekin, baita arrazializatuekin eta beste komunitate minorizatu batzuekin ere. Eta arazo handi bat daukagu: ez dago erreferenterik.

LGTBIQ+ komunitatearen kasuan, Alan Turingetaz aparte ez daukagu beste erreferenterik. Eta sinestezina da: zientzietan ez al dago marikarik, bolle-rik eta transik? Noski baietz, baina ez diegu inongo kasurik egiten; ez diegu

inongo garrantzirik ematen. Emakumei ere ez zaie ematen. Ez dut ulertzen nola izan daitekeen, baina horixe da errealitatea.

Horri aurre egiteko antolatzen duzue Harrotasuna Zientzian ekitaldia 2018az geroztik.

Bai, lehendabizikoa DIPCK eta Materialen Fisika Zentroak antolatu genuen elkarlanean, Idoia Mujikak eta biok gehienbat. Hitzaldi batzuk antolatu genituen. Sekulako arrakasta izan zuten, eta jendeak eskerrak eman zizkigun. Ekitaldi batera jende asko gerturatzea gauza bat da, baina norbaitek eskerrak ematen dizkizunean zerbait antolatzegatik, hor aldaketa bat dago. Behar bat sortzen da. Orduetik aurrera urtero antolatu ditugu gauzak, eta aurten bi ekitaldi prestatu ditugu, bata ekainaren 29an da, Bilbon, Kultura Zientifikoaren katedrarekin batera, eta bigarrena azaroan egingo dugu -oraindik ez dugu data zehaztu-. Eskoletan egin nahi dugu. Hortxe ari gara borrokan, funtsean erreferente berriak sustatzeko eta errealitate berriak erakusteko hurrengo belaunaldiei. ●


Udakoa, kalean!

**EUSKARA
IKASLEA
ZARA?
IRAKASLEA?**



- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Irlandarrak eta gu



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Irlandarrek bere hizkuntza galdu dute eta ingelesa irabazi. Zer gehiago irabazi dute? Zer gehiago galdu? Astebate egin dut Dublinen, James Joyce-ren *Ulysses* nobela mardulean oinarri hartzen duen Bloomsday jaialdia bizitzen eta aztertzen.

Lehenago ere ibili izan naiz Irlandan, ipar eta hego, eki eta mendebal, XX. mendean eta XXI. honetan. Gehienetan bertatik gurera zer ekar daitekeen/zitekeen aztertzeko asmoz. Ez daukat batere argi erantzuna. Herrialde ederra da Irlanda, historia garaikidean asko sufritu duena, eta agian horregatik, jende maitagarria aurkitzen duzu bertan. Lagun minak egin ditut. Une honetan norantz abiatzen den nahiko nuke jakin. Zergatik aurkitzen den, oraindik ere, kinka larrian.

Euskaldunoi aurrea hartuta sartu ziren irlandarrak bake prozesuetan. Errepublikak zaleak independentzia eta irla osoaren batasuna zuten helburu, eta maiz errepikatu ziguten itzaropena hazkunde demografikoan jartzen zute-la, errepublika zaleen hazkundera azkarragoa zela, alegia. Orain irabazi dute botoetan, baina Brexit-a trabatu zaie erdian. Ezin gobernu berririk eratu. Ezin Irlanda erdibitzen duen muga ezabatu. Ezin aurrera egin batasun amestuan.

Bitartean, duela mende oso bat errepublika independente den hegoaldeko estatuan, gauzek bere bide propioa hartu dute. Propioa? Ez naiz batere ziur. Baliteke hemen ere Sinn Féin nagusi-

Abegitsu hartu gaitu
Patrick J. Murphy
jabeak, eta euskaldunak
ginela entzutean,
'Ulises' nobela euskaraz
jarri du mostradorean
gure aurrean

tzea hurrengo hauteskundeetan, hori aipatzen da bertan. Baina zer gizarte mota aurkituko dute errepublika batua-ren aldekoek gobernura iristen badira? Izango dute behialako helburuetarantz abiatzeko aukerarik?

Hibernia zaharraren hiriburua kontsideratu izan da Dublin. Metropol hiberniarra deitzen dute literatura modernoan. Egunotan James Joyce da erreferentzia nonahi, eta haren *Ulysses* ospatzen dute Bloomsday arrakastatsu eta instituzionalizatuan. Ekainaren 16an, egun oso batez, Leopold Bloom jaun dublindarrak bertako kaleetan bizi izandakoak errepikatzen saiatzen dira. Beraien bide beretik joan eta zer aurkitzen dugun egin nahi izan dugu aproba.

Ulysses bada Dublin, baina bertatik oso urruti, Triesten, Zurichen eta Pa-

risen idatzi zuen nobela James Joycek. Hogeita bi urte zituela egin zuen alde Irlandatik, bertako giroa itogarria egiten zitzaiola argudiatuz. Europa osoa gerran zegoela ekin zion Joycek nobela idazteari, zazpi urte eman zituen horretan. Norbaitek aurpegiratu zion Zurich neutralera ihes egin izana ("zer egin zenuen gerra garaian?"), eta idazleak erantzun: "*Ulysses* idatzi nuen, eta zuk zer egin zenuen, bada?".

Nobelaren bosgarren kapituluan, Leopold Bloomek, jakitun bere emaztea amorante batekin elkartu ohi dela bien etxean, Molly emaztea beregana erakartzeko asmoz, Dublingo farmazia ezagun batean limoizko xaboi urrintsu bat erosi eta oparitzeko plana egin du. Nobela argitaratu zenetik mende batera, aurkitu dugu Lincoln Placen Sweny's Pharmacy. Abegitsu hartu gaitu Patrick J. Murphy jabeak, eta euskaldunak ginela entzutean, *Ulises* nobela euskaraz jarri du mostradorean gure aurrean, Xabier Olarrak itzuli eta Igelak argitara emandako edizioan. Gure harridura mirestua igarri eta jarraian, gitarra hartu eta kantu eder malenkoniatsua abestu digu. Gaelikoz, irlandez alegia. "Mendi ingurutik datorren haizeak jende berria dakar gugana". Hunkigarria. Baina irlandera galdu zen eta Dublingo kaleetan neoliberalismoaren seme-alaba ugari, oso ugari, eskale dublindarrak dira egun, O'Connell kale historikotik Grafton komertzialera.

James Joycek ingelesez idatzitako ipuin bilduma da *Dublindarrak*. ●

Garun artean



UXUE APAOLAZA



PAULA ESTÉVEZ

Nik ere badut disko eta liburu bilduma etxean, ez larritu”, jartzen zuen apalategia izan zitekeena estaltzen zuen maindire batean itsatsitako folio batean. Berria Aretorako Eneritz Furryaren bideo bat zen. Ni ere fijatzen naiz etxetik egiten diren grabaketa/argazkietan pertsonaien atzealdeak dekoratzen dituzten liburuz betetako apalategietan. Liburuak lekuz aldatzen dituzte ale jakin batzuk ikus daitezkeen (eta ez beste batzuk)? Non jarriko nintzateke ni? Nire liburuak kaxetan daude, ez etxe bakarrean, baina kaxetatik kanpo ere ezingo nuke plano handiegirik bete, eta noski, ezingo nuke ikuslea seduzitzeko aukeraketarik egin. Izeba-osaben etxera joan beharko nuke.

Horrek ez du esan nahi gutxi irakurri dudunik. Liburu asko-asko ez ditudala baizik, jabetza fisikoan. Irakurtzea, izatez, biziraupen kontu bat ere izan da nire bizitzako uneren batean. Eta hainbat liburutegitara eta liburutegitan ematen nituen bueltak, Gasteizko Ignacio Aldecoara kasu, nire eguneroko ibilbideen ehuneko handia hartzen zuten. Madrilen bi txartel nituen, hiriko liburutegikoa eta erkidegokoetakoa; bakoitzean hiru liburu har zitezkeen aldi berean. Liburuzko korridoreetan ibili naiz hona eta hara,

makurtuta, eserita, ia etzanda, zorabiatuta azkarregi jaikitzeagatik, C-tik S-ra, berriro C-ra, B-ra, eta zein utziko dut, hau ala hau; aurretik gozatutako aho-tsak, lehen paragrafo batek paparretik heldu eta irentsarazi didana, argialetxe jakin batekoa delako hartutako liburua, idazle beraren sei, bi irakurtzeko, laugarren aldiz hasiko dudana nobela, irakurri ez dudala esatea lotsa ematen didan klasikoa, atzo irratian aipatu zutena, beti hartuta egoten zen nobedadea, *zergatik-bai* eramandako eta bestela inoiz irakurriko ez zenukeen goxokia...

Nire gurasoen etxea ez zen irakurle etxea, baina ahalegindu ziren, nolabait, gu irakur zaletzen (13 urterekin *Sargori* ekarri zidaten Durangotik, ipuinak zirenez, haur- edo gaztetxo-literatura, eta desegokitasun hark bizitza aldatu zidan), baina ikastola (*Obabakoak* izeneko altxor bateko bitxiak fotokopiatuta ekartzen zizkigun andereñoa) eta liburutegiak izan ziren, bereziki, biziora eraman nindutenak. Eta ezingo niokeen bizioari eutsi, nire beharren mailan, eskura liburutegi publikorik eduki ez banu, nahikoa diru ez baitut inoiz izan (ezta izango ere, horrela jarraitzen badut).

Liburutegi publikoei esker gure ahalmen kapitalistatik askoz harago irakurri

dugu askok. Gutxi askok. Eta ez genituen behar inoiz lehenago irakurri ez bage-nu bezala hitz egiten ziguten liburuak, ez da hori aberastu nauen demokrati-zazioa. Liburutegiaren miraria bestea da: sublimatea, iraultzaileena, sotilena, erudituen... gure esku dago. Aristokrata naiz liburutegian, beste mundu batzuetan sinesten duen fededun ateo bat. Nire kasuan, estutasun absurdo batean bizitzetik libratzeko ematen den aholku hori, “hartu zeure burua zaintzeko denbora”, “joan liburutegira” da. Noizbait “erakutsi zure liburutegia” eskatuko balidate, liburutegira joan beharko nuke. Nire bizitzako momentu zoriontsuena-tako asko liburutegian jaio dira, gure espeziekoa izatea zaila ez zaidan leku bakanetakoan. Eta liburutegian hain lasai arnastearren arrazoietako bat da hartuko dudana ez dela nire etxean zabor heredagarri bilakatuko, han literaturak ez du inolako pisurik; ezer ez da nirea han, liburuan itsatsitako fitxan ikusten ditugu zigilatutako datak, bakarti bate-tik bestera, garun arteko harreman isil bat. Nire ingurune materiala begiratuta, inork ez luke antzemango nire altxorra zein den: eramaten nauten lekura eramanda, liburutegi bat daramat burezur barruan ezkutatuta. ●

Umoretik umorera



ENEKO OLASAGASTI
GIDOILARIA ETA
ZUZENDARIA

Makina bat buelta eman dizkiot nire azkena izango den kolaborazio honi nondik heldu. Urte hauetan guztietan lerro hauetara ekarri ditudan gaiak, kezkek, proposamenak, eskaerak... etortzen zaizkit bueltan. Egia esan, aipatu, gauza asko aipatu dira orri hauetan, baina horietako gutxik izan dute aldaketa edo aurrerapenik azken hamarkadatan. Denak berdin jarraitzen du Europako ikus-entzunezko legeak telebistak behartu zituenetik aurrekontuen %5-%6 bertako ekoizpen independentea bultzatzeko inbertitzera. Baina zinemarako ekoizpenak gora egin zuen bezala telebistak nabarmen behera egin du, ia desagertzeraino. Negarrez ez has-teko berrirori, gaia umoretik hartzea erabaki dut. Azken batean, ETBn egindako gehiena umorearen arloan egin dut.

Modak, boladak, sasoiak omen dira. Orain goian zaude, baina ez zara beti hor egongo, espero ez duzunean zulo-ra zoaz eta abiatu zineneko puntu be-rean egongo zara, zoruan. Bizilegea omen. Hala diotsute kontsolatu nahian. Gure sasoirik onena 90eko hamarkadan hasi eta 2000ko erdi alderaino iritsi zen. Gure aurretik Piter Ansorenak eta Xabier Otaegik egindakoak izan ziren (*Funtzioa*), baita Elena Iruretak eta Aizpea Goenagak egindakoak ere (*Hau da A.U.*, *Benita ta Marini*). Horiek utzitako lekua Carlos Zabalak eta biok gidatu-

tako taldeak hartu genuen (*Bi eta bat*, *Jaun ta Jabe*, *Martin...*). Gurekin batera eta erreleboa hartuz Anjel Alkain eta *Wazemank*-eko tropa etorri zen. Ezin ahaztu *Sorginen laratza*-n parte hartzen zutenak Alkainekin batera. Komediantek haietatik telebisiboki biziraun duen bakararra Pagadi izan da. Azken hori kenduta inork ba al daki non dabilzan besteak? Eta zerrenda ixteko Aitziber Garmendiak eta Jon Plazaolak gidatuko taldea daukagu (*Barre Librea*).

Izenak falta dira, noski, baina nagusiki horixe litzateke 40 urteko kronologia. Batzuk kendu besteak jartzeko. Esango babilgute bezala: "Tira, gazteok (hala ginen eta), bukatu da zuen txanda. Ez duzue usteko, bada, bizitza osoa honetan eman-gu duzuenik, ezta?". Hori esaten zigutene-tako batzuk hor dabilza, ordea, goraka eroriz, besteok beheraino erortzen garen bitartean.

Ezinbestean umorez hartu beharko dugu. Baina ez da erraza baztertzen zai-tuztenean umorez hartzea. Batez ere zure burua lan honetarako oraindik ere gai ikusten duzunean. Orain, gainera, 40 ur-teko eskarmentua pilatuta daukagu.

Bizilegea izango da, bai, baina guk bizi-nahia daukagu. Eta oso urrun ez badugu ere oraindik ez gara jubilatuta. Inork gidoi-lari edo zuzendari bat beharko balu, diot.

Eskerrik asko ARGIAri aukera hau emateagatik eta nahi duzuen arte. ●

"Jasangarri"



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Aspaldian, ikastetxe baten atarian "eskola jasangarriak" zioten ban-derak ikusi nituen. Barrezka hasi nintzen, eta nire artean pentsatu nuen: "Zelako zorrea duten eskola honetako umeek, klaseak ez dira-eta guztiz asper-garriak, ondo eramango dituzte". Noski, badakit irakasle eta gaien astuntasuna-rekin zerikusirik ez zuela bertan iragarri-takoak, planeta babesteko ekimena zela.

Gaur egun, eskolez gain, dena da *ja-sangarria*. Ezinbesteko adjektiboa edo-zein proiektutan. Baina jasatea pairatzea da, eta beti tolerantziarekin lotuta dago: "Bale, bueno, tira, aguantatuko dugu bes-

terik ezean". Jasangarritasunaz dihardu-tenean, beste kontzeptu baten gainean dabilza; daukagunari eutsi behar diogu-la, eskastxoa bada ere, iraun dezan, gehi-go honda ez dezagun. Eutsi eta iraun dira aditz gakoak.

Eta Silvio Rodríguez-ek kantatzen duen moduan, tolerantzia da inkisidoreen pa-sioa. Ez ote du jasangarritasun kontzep-tuak garbiketa berdetik gehiago iraun-kortasunetik baino? Euskaraz, gura barik, asmatu ote dugu zurikeria izendatzen?

Bihurtuko ahal ditugu jasangarri guz-tiak iraunkor! Denbora agortzen ari da. ●

Erabileran kale!



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Kale erabileran neurtu du Soziolin-
guistika Klusterrak eta emaitzak
argi dio: beherazko joeran doa
euskarazko jarduna. Eta hori soilik bali-
tza, hutsa. Gainera, euskarazko elkarriz-
keta kopurua Gipuzkoan %31 da, baina
%9 Bizkaian eta %5/6 gainerakoetan.
Zortzi lagunetik bat ari omen da euskar-
raz kalean eta horri eusten omen diogu
azken bost urteotan.

Lurralde guztietan egin omen du
behera adinekoen euskaraz egiteko hau-
tuak. Gehien edo ia gehien hitz egitetik
gutxien hitz egitera pasatu dira. Horrela
esanda eta izurrite garaian adinekoen
heriotza tasa zenbatekoa izan den jaki-
nik... baina, barre egiteko kontua ez den
arren, umorea galdu gabe segi dezagun.

Izan ere, gazte eta nerabeen artean
“bizi” dugun egoera ez da kriskitinak
jotzen hastekoa. COVID-19 izurritearen
garaian bizi izan omen dira zoriontsuen,
etxean sartuta, Play, Facebook... edo
dena delakoaren aurrean eguna pasa-
tuz, inori konturik eman beharrik gabe,
gurasoen otorduak baliatuz beraiekin

Zertarako dugu gero
eta gehiagok gure
hizkuntza jakitea
ez erabiltzekotan?
Zertarako bizia ez...?
Zertarako lurra?

harremana une puntual horretara mu-
gutzen zutela. Eskolara joan behar izan
dutenean azaleratu dira ezinak eta gabe-
ziak: bizitzeko gogorik ez; beren buruaz
beste egiteko tentazioa izan du askok.

Eskolak zer funtzio edo betebeharrak
du? Eskola esatean irakasleak esan nahi
baita. Tutoreak zertan saiatu behar du,
emaitzak aztertu eta gurasoei lehenetik
badakitena berresaten? Edozein gaitan

ari den irakasleak bere gaia eman eta
kito, ala aurrean dauzkan pertsonak
zein egoera animiko, psikiko, sozial...
bizi duten ere kontuan izan behar luke?
Unibertsitateak sortzaileak, ekimeneko
jendea, gogoetan trebatuak prestatzen
omen dituela dio, baina horretaz galde-
tu dieten ikasleek ez dute beren burua
ezaugarri horietan jantzirik ikusten. Es-
katzea eta esatea libre!

Eta hiriak, etxebizitzak pilaka eraiki-
ta dauden leku (ohituraz bizileku dei-
tuak) horrek, zer funtzio du? Balkoia
soilik falta al dute kaleko etxe gehienek?
Zergatik pilatu gaituzte irabaziei begi-
ra egituratutako gune horietan? Hiriak
zenbat du bizi lekutik eta lekua bizitzea
noiz, non baztertu/ahaztu dugu? Bo, eta
ezin ahaztu etxegabetzeak, okupak eta
abarrak.

Erabileran kale egin dugu eta egiten
ari gara; zertarako dugu gero eta gehia-
gok gure hizkuntza jakitea ez erabiltze-
kotan? Zertarako bizia ez...? Zertarako
lurra? Baserri hutsak, ekologia, eskola,
ikasketak... etorkinak... ●

“Antzinako gari barietate ekologikoak erabiliz, gure ogia goxoagoa da eta ingurumena errespetatzen du.”

LEIRE BEORLEGI
Okina, IRUNBERRI

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA aurrera goaz!

cpaen.org
navarraecologica.org

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

UNIÓN EUROPEA
Hortik Europako Iniziatibak

CPAEN
NNPEK

ALIMIENTOS COLABORATIVOS
DE NAVARRA
eko-
logikoak
para vivir mejor!

Erabakitze eskubidea



Jarrera aldatuta, alderdiak mugitu asmoz dator Gure Esku

Pirinioetako Bidea ekimena antolatu du Gure Esku-k uztailaren 2rako, Katalunia-ko eragile sozial soberanista nagusiekin. Asmoa da Atlantikoa eta Mediterranea lotzen dituzten gailurrak argizatuz, nazioarteko komunitateari mezua bidaltzea: irtenbide politiko bat behar dute Euskal Herriak eta Kataluniak, eta erabakitze

eskubidea praktikan jarri behar da auto-determinazio erreferendumen bidez. Hori lortzea, ordea, oso zaila da, eta ekimena aitzakia hartuta, 9 urte bete dituen mugimenduaren bozeramaileekin bildu gara, egoera politikoaz eta Gure Eskuk darabilen estrategiaz mintzatzeko. Estimatu diegu zintzotasunez hitz egitea.

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA  GURE ESKU

Ekimenez hitz egin duten bakoitzean azpimarratu dute: Pirinioetako gailurrak argizatzea baino, burujabetzarako prozesu bat abiatzeko herri gogoa berpiztea da helburua, Gure Esku mugimendua berraktibatzea, herri eta auzoetan taldeak lanean jartzea, erabakitze eskubidearen gaia ez dutela alderdien eskuetan utzi nahi gertuko jarraipenik egin gabe. Hortik hasi dugu elkarrizketa bozeramaileekin. Pirinioetako ekimenetik harago, zer pertzibitzen dute oinarritik?

Amalur Alvarez (Donostia, 1988) argi mintzo da. Oinarrian egoera politikoa-rekiko nekea ikusten du, baita gertu dituztenengan ere. Arrazoiak ugari izan daitezke: azken urteetako blokeo politikoak eragindako desafekzioa, pandemia eta alderdien arteko tirabirak edo Kataluniako prozesuaren blokeoa, batzuk aipatzearen. Nabarmendu du EAE mailan aurreko legegintzaldian pausoak eman baziren ere, oraingoan ez-atzera ez-aurrera dagoela gaia eta autokritika egin duela mugimenduak, bai barnera begira,

baita kanpora begira ere. Gogoratu behar da Gure Eskuk 2018an Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotu zituela giza-kate jendetsu batekin, Gasteizko Legebiltzarrean amaituz eta herri mugimendu gisa sinbolikoki alderdi politikoei konfiantza emanez estatus berriaren eztabaidan murgildu eta aurrera egin zezaten erabakitze eskubidearen esparruan. Gizarte presioa desagertu hala, ordea, gaia blokeatuta geratu da lau urtez. Horrek ezinegona eragin du Gure Eskuren oinarrian eta argi dute ez dutela akatsa errepikatuko,

jarreraz aldatu behar dutela. “Ikasi dugu gure akatsetatik, txipa aldatu dugu. Gure helburua da beste indar batekin itzultzea panorama politikora eta ikasturtean tonu hori mantenduko dugu, gainean izango gara, zaintza egiten eta zorrotzak izaten”.

Josu Etxaburu Osak (Ondarroa, 1961) uste du pandemia eta ondorengo bi urteak oso mingarriak izan direla ekintza kolektiboen ezintasunagatik. Gizartearen lehenetasunak zein diren argi geratzeaz gain, burujabetza beharra nabarmendu dela. Aldi berean, argi du Gure Esku korronte politiko indartsuen aurka egiteko sortu zela eta hori beti dela konplikatu. Horregatik, gaur egungo giroa dena delakoa izan arren, 9 urteotan eginikoa balorean jartzen du. “Pedagogia zabala egin behar izan dugu erabakitzeke eskubidearen inguruan, eta urteotan herrietan kristoren lana egin da jendea aktibatzeke”. Etxabururen esanetan “orain ez da momentua”, “gizartea zatitu nahi duzue” edo “ez da tokatzen” diotenei aurre egiten diete. “Orain ez dela tokatzen? Ba lasai, tokatu araziko dugu”.

“Pirinioetako ekimenarekin markoa kokatu nahi da: Europan gaudela, eta Katalunia eta Euskal Herria elkarrekin goazela”

Amalur Alvarez

Orain gutxi *Irutxuloko Hitza* astearian Donostiako bi militantek eginiko adierazpenak berreskuratu eta bere egin ditu Alvarezk: “Nazkatuta gaude puxikak mugitzeaz eta prozesu bat eraiki nahi dugu”. Hori egiteko bide bakarra Gure Eskuko oinarriek jarrera hori barneratzea izango dela uste dute.

LURRALDE TASUNA, BETI GAI KONPLEXUA

Gure Esku Euskal Herri mailako proiektua izaki, lurraldetasunaren gaia nola bizi duten galdetu diegu. Aitortzen dute zaintza berezia egiten saiatu diren arren, konplikatu dela, Nafarroa eta Iparraldetik jasotzen dutela batzuetan *EAEztristak* direla egiten dituzten ekimenak, EAEko errealitateetik tiraka egingo balituzte bezala. Azken bi ekimenetan, lurraldetasuna zorrotz zaindu dutela nabarmendu dute: burujabetzaren aldeko *Hamaika gara* sinadura bilketarekin, lurraldeko eskaera egokituei leku egin diete eta orain, Pirinioetako ekimenarekin adibidez, lanketa berezia egiten ari dira Nafarroan, eta talde ugari sortu dira. “Guk argi dugu Euskal Herriko prozesu politikoak hiru errealitate administratiboak errespetatu behar dituela, eta ziurrenik hasiera batean hiru prozesu ezberdin izango direla, une batean bateratasunak sortzen joango direnak”.

Instituzioei dagokienez, EAEko Legebiltzarrean alderdiak interpelatu berri



dituzte erabakitzeo eskubidea estatus berrian txerta dezaten legalki, eta Nafarroan ere ematen diren aurrerapausoak jarraitzen dituzte, alderdi eta mugimenduekin bilduz. Nafarroa Berriz Altxa edo Nafarroa 21 bezalako eragile berriekin, oinarriak partekatzen dituztela ikusten dute: erabakitzeo eskubidearen edo autogobernuaren eztabaida irekitzea, herritarren parte-hartzea eta prozesua erreferendum batean amaitzea.

Etxaburuk garrantzitsu ikusten du errespetu osoz egitea Euskal Herriaren inguruko lanketa. “Argi dago banaketa inposatu egin zigutela, ez zigutela galde-tu, baina horri buelta emateko, eremu bakoitzari bide propioa egitea dagokigu, bide demokratikoan gehingoak lortuz, bakoitza bere erritmoan, denak norabide berean: Euskal Herriaren trinkotzea”.

Pandemia aipatua izan denez, kazetariak aipatu du zazpi lurraldeko Euskal Herria ahuldu egin zela sumatu zuela konfinamendu sasotik irtetean, lurraldekako itxialdiek geografikoki oso gertu zeuden herrien artean harresiak jarri zituztelako eta apenas egin zelako horren aurka –Nafarroaren eta Ipar Euskal Herriaren arteko mugako protesta zenbait salbu–, edo adibidez, EAEko lehendakariak nahiago izan zuelako Espainiako Kantabria probintziarekin ireki mugak Nafarroa edo Ipar Euskal Herriarekin baino lehen. “Bai, noski, oso mingarria izan zen euskaldun askorentzat, keinu horiek esanahi handikoak direlako bakoitzak buruan zer herri proiektu duen irudikatzeo. Uste dut indartu behar dela Euskal Herriaren pedagogia egitea eta hori ez zaiola soilik Gure Eskuri tokatzen”, borobildu du Etxaburuk.

“Goikoek egingo dute bat edo beste guk mugitzen baditugu. Hori da Gure Eskuren indarra eta herritar bakoitzak barneratu behar du”

Josu Etxeburu Osa

KATALUNIARREKIN ZER?

Argi dago Euskal Herrian eta Katalunian gertatutakoak gertatu ostean, bi herriotako mugimendu soberanistak elkarlanean hastea –eta adibidez, alderdi politiko independentistek Llotja de Mar-eko Akordioa sinatzea– paradigma berria dela Espainiako Estatuarekin konpondu gabe dauden arazo politikoen esparruan, baita nazioarteko komunitateari begira ere. Elkarlana zehazki nondik sortu den galdetu diegu.

Roger Torrentek Gasteizen emandako hitzaldia etorri zaio berehala burura Etxabururi. Elkartasun manifestazioak eskertzearekin batera, Kataluniako Legebiltzarreko orduko presidentek mahai gainean jarri zuen Kataluniaren eta Euskal Herriaren erronka elkarlanean aritzea zela. Bere ustez, fokua aldarazi behar zitzaion Espainiako Estatuari, argi utzi ez zela katalanen edo euskal herritarren arazoa, Espainiarena baizik, ez die-

lako irtenbide demokratikorik ematen mendean dituen herriei. “*Estatua ataka batean jarri behar dugu* zioen, eta nazioarteari adierazi behar zaio irtenbide demokratikorik ezean beste maila bateko esku-hartzea exijitzen dugula. Arrazoi osoa du”.


Alvarezek oroitu du 2018an Donostian egitekoak ziren herri-galdeketa- testuinguruan, bi abokatu elkartu zituztela: Miguel Castells eta Benet Salellas. Burgosko prozesuaren eta Kataluniako lider sozial eta politikoen aurkakoaren arteko paralelismoez solas egin eta ondorioztatu zuten pertsona konkretuen aurkako epaiketa baino, bi herrien aurkako prozesuak zirela eta bi herriak elkarrekin lanean indartsuagoak direla.

Garai hartan Gure Eskuko militantzia barne-mailan errepikatzen hasia zen elkartasun manifestazioetatik harago joateko beharra, gero Katalunian Montserrateko gailurra argiztatu zuten, Gure Eskuko kideak Euskal Herrikoak argiztatzen hasi ziren nahiko bat-batean, harremanak sakontzen joan ziren, eta orain, zenbait urte eta pandemia bat igaro ostean, Pirinioetako Bidearekin lehen harria jarri nahi dute. “Erabat sinesten dugu bide honetan. Fruituak emango ditu hurrengo urteetan, herri bakoitzak bere zailtasunak izan arren”, dio Alvarezek.

NAZIOARTEAREN ERANTZUNA

Ahalegin guztiak egingo dituzte sona izan dezan ekimenak nazioartean, eta ziur daude Kataluniako eta Euskal Herriko mugimendu soberanistak sinkronizatzen hasi izana iritsiko dela “behar den lekue-tara”, uste du Amalur Alvarezek. “Pirinioetako ekimenarekin markoa kokatu

2019ko urrian, lider independentisten aurkako epaiketa hasitakoan, Aiako Harriak argiztatu zituzten Gure Eskuko kideek, kataluniarrekin elkartasunez.



nahi da: Europan gaudela, eta Katalunia eta Euskal Herria elkarrekin goazela”.

Ikusi egin beharko da nazioarteko panorama mediatikoan zein oihartzun duen milaka pertsonak Pirinioak argiztatzeak Europari igorritako seinale gisa. Espainiako hedabide zenbait albisteari garrantzia kentzen saia daitezkeen arren, Kataluniako eragileek azken urteetan beren gatazka internazionalizatzeko lan eskerga egin dute, eta ikusgarritasun handia lortzen dute beren ekimenekin. Horrenbestez, faktore berria da hedabideen lanketa katalanekin batera egitea euskal mugimendu soberanistarentzat.

Hori esanda, Alvarezek argi du Europak erantzukizun garbia duela Euskal Herriko kasuan. “Europako herritarrak gara eta eskubide batzuk ditugu. Guri bizkar emanagatik ere gatazka ez da desagertuko”.

ERREFERENDUM ADOSTUA HELBURU?

Gure Eskuko bozeramaileek ikusten dutenez, 2017ko urriaren 1eko erreferendumaren ostean Katalunian eragileek estrategia ezberdinak darabiltzate; epe laburrean nondik jo tira-biran badabil-tza ere, eta nahiz eta urriaren 1ari zilegitasuna onartu, bigarren erreferendum bat egingo balitz, ados daude denak horrek estatuarekin adostua izan behar

duela. Bestela ez duela zentzurik beste erreferendum bat egiteak.

“Gure Eskutik egiten dugun irakurketa da, aldaketak eragozteko errepresioa eta indarkeria baliatzen dituen estatu baten aurrean, ezinezkoa dela prozesuari buruzko akordio bat hasieratik lortzea. Horrek ez du esan nahi, dena den, konponbidea ez dagoenik akordioan –dio Alvarezek–. Edozein lekutan markoak adostu egin behar dira eta guk ere onartu behar dugu akordio-marko batetik pasa beharko garela gizarteare-

kin, administrazioarekin, estatuarekin, Europarekin... aldaketak egin nahi baditugu. Kontua da nola heldu puntu horretara. Denetarik beharko dugu: indar metaketa, konfrontazioa, alde bakarrez emandako pausoak eta akordioak. Are gehiago, adostasun horietara indartsu heldu nahi badugu. Horrek ekarriko du noizbait konponbidea eta Katalunian orain estrategia baten edo bestearen alde ari direnak, horretan ados daude”.

“Erabakitze eskubidearen aldeko erreferendum adostua aldarrikatzen



Gure Eskuk, ANC-k eta Omnium Culturelek Korrikaren lekukoa elkarrekin hartu zuten, Ibañetan.

Euskal herritarrek 154 gailur

100 lagunetik gora batu dira Eibarko unibertsitatean. Jendea galdera zehatzak egiteko gogoz dago: Iritsi dira farolak? Petoak nondik hartu? Nola bermatu parte-hartzaileen segurtasuna? Zer eguraldi emana dago? Bi orduetik gorako barne-bileran xehetasun guztiak erreparatu dituzte.

Bai, heldu dira farolak. 200 bat, euskal herritarrek egingo dituzten gailur guztietan berमतuta egongo da. Gailur berdeak eta gorriak bereizi dituzte, irisgarritasunaren arabera. Gailur berde

guztiak Euskal Herrian daude eta jende gehienarentzat irisgarriak dira. Herrien arabera banatuta daude eta gailur berdeotara joateko asmoa dutenek www.gureesku.eus webgunearen bidez izena eman behar dute.

Gailur gorri gehienak Erdialdeko Pirinioan daude eta mendizale trebatuentzat dira egokiak. Gailur gorrietara doazenek emaila idatzi behar dute pirinioetakobidea@gureeskudago.eus posta elektronikoa. Izen ematea martxa onean doala aurreratu dute antolatzaileek, bai Euskal Herrian, baita Katalunian ere.

Gailurretara 21:00etarako igo beharko dute parte-hartzaileek, eta eguzkia sartzen denetik ilundu arteko denbora tartean izango da ekintza, 21:45etatik 22:30etara, gutxi gorabehera. Mendian gora nahi ez duenarentzat Jaizkibelgo Guadalupe inguruan gunea prestatuko du Gure Eskuk, musika eta iluntzea igarotzeko giro aproposarekin.

Gails de Cerdanyan izango da ekitaldi politiko nagusia eta antolatzaileek hartuko dute hitza bertan. Zuzeneko emisioa egingo dute bertatik, baita gailurretatik ere. ARGIAren webgunean ikusgai izango da zuzeneko seinalea, Pirinioetako argi-lerrotik eta ekitaldi politikoetik.

dugu Gure Eskun, ez inozokeriaz. Garaioan ezinezkoa dirudi, baina ez genioke garai honi bakarrik begiratu behar. Hemen hitz egiten ari gara ea zer nolako interpelazio demokratikoak egin behar dizkiegun estatuei. Konfrontazio demokratiko honen bidetik, sinetsita nago etorriko dela erreferenduma. Gaur egungo estatu ereduak zenbat urtez gehiago eutsi ahal izango diote egoerari? Gainera, Europan pieza batzuk mugitzen ari dira, Eskozia, Irlanda edo Korsikan kasu. Seguruenik nahi baino beranduago lortuko dugu hori, baina lortuko dugu”, dio ondarrutarrak.

ERREFERENDUMA EUSKAL HERRIAN?

Azkenik kazetariak galdetu die ea EAJ ikusten duten posizio horietara joaten, halako prozesu batean murgiltzen, estatutarekin konfrontatzen, eta ea zer egingo duten EAEko estatus berrian erabakitzeko eskubidea ez badute legez aitortzen. Erantzuna Etxeburuk eman du: “Guk ez dugu esango alderdi bakoitzak zer jarrera hartuko duen, bakoitzak esan beharko dio hori gizarteari. Guk publikoki eta pribatuan esan dugu ez dugula onartuko erabakitzeko eskubidea erdigunearan ipiniko ez duen eta herritarroi hitza emango ez digun estatus berririk. Modu bateko edo beste erantzuna emango diogu edukiaren arabera”.

Alvarezek ikusten du tentsioa igokoa dela ziurrenik eta alderdiekin konfrontazio handiagoko garaia datozela. “Akor-dio momentuak ere beharko dira, behar ditugu demagun EAJ, EH Bildu, Podemos, PSE.. batzea, baina alderdi horietakoren bat eskubide horren aurka jartzen bada, edo ekimena blokeatzen saiatzen bada, dagokigun lana egingo dugu”. Elkarrizketan zehar askotan errepikatu duten ideia da Gure Eskuk egin duela autokritika eta jarrera zorrotzagoarekin interpelatuko dituela alderdi politikoak, nolabait, lobby lana egitea dagokiola onartzen dutela.

Gure Eskuk bi lan-lerro ditu Etxaburuk azaldu duenez: batetik kalea eta herrigintza, eta bestetik, gehiengo zabalak josteko lana, benetan lortu ahal izateko erreferenduma. “Guk gure papera jokatu behar dugu, geure buruarekin autoexigente eta besteekin exigente izanez. Ez dugu ahaztu behar legebiltzarkideak herritarren zerbitzura daudela, eta kitto. Urteak joan urteak etorri, beren zerbitzura gu gaude-la ematen du eta demokrazia egikaritzera behartu behar ditugu. Aukera leihoak geroz eta handiagoak izan daitezen lan egin behar dugu, geroz eta gutxiago erabil dezaten ez dela tokatzen edo herria zatitzen dugula moduko esaldiak.

Alvarezek dio alderdi politiko guztiekin gertatzen dela: ez badute zer irabaziko duten argi ikusten, beti erdiko bi-

dea hartzen dutela. Hala ere, bozeramaile urteetan ikusi du alderdiek Gure Esku mugimenduari indarra aitortzen diotela –“askotan geuk gure buruari baino gehiago”–, oso harreman onak dituztela eta abendutik ari direla alderdiekin lanean. Konpromisoak betetzea eta erabakitzeko eskubideari buruzko eztabaida berrak-tibatzea eskatzen diegu. “Esan dezakegu lana fruituak ematen hasiko dela eta udazkenerako fruitu gehiago espero ditugula”, aurreratu du donostiarrak.

“Kataluniako agintari politikoak olatu independentistara batu ziren gizarteak gainezka egin zienean. Guk ordea, tranpa egiten diogu geure buruari: alderdiak ez daudenez klabe horietan, ez gara gai ikusten aurrera egiteko. Aldaketak beti behetik datoz ordea. Ez dago formula magikorik –dio Etxeburuk–. Goikoek egingo dute bat edo beste guk mugitzen baditugu. Hori da Gure Eskuren indarra eta herritar bakoitzak barneratu behar du”.

“Tantaka-tantaka iritsi behar da, bide hau ere besteekin batera egin nahi dugu, ez gara bakarrik joango. Partidu hau jokatzen nahi dugu Europako jokalekuan. Jakinda estatuen adinako indarrak ez dugula, gure fitxak mugituz, orain egiten ari garen txingurri lanaz kontzientziak irabaziz”. Euskal Herria Europako hurrengo erreferendumen olatuan egotea da Gure Eskuren helburua. ●

BASERRIKO LURRAK IRAULTZEKO ESKUAK FALTA DIRA



Begi-bistakoa da Euskal Herriko baserri tradizionalen eredia jada agortu dela, eta gero eta gehiago mugatzen ari dela folkloreak iruditerira. Azken bi hamarkadetan baserrien %70 galdu dela kalkulatu da, eta baserritarrek zein adituek ohartarazi digute belaunaldien arteko errelebo falta arazo handia dela. Berehala konpondu beharreko auzia, berandu baino lehen. Errelebo horretan ez dute laguntzen instituzioetatik bultzatzen diren politi-

ka agroindustrialek, ezta jendartean dagoen prestigio faltak ere. Baina badaude lurra lantzeko tresna berriak, fruituak ematen ari direnak: Trebatu proiektua, lehen sektorea suspertzeko tokian tokiko elikadura estrategiak, baserritarren sareak... Elkarrizketatuek gogorarazi digute gaiarekiko ezjakintasuna dagoela, baina herritar oroaren arazoa dela, eta, beraz, guztiok parte hartu behar dugula horretan: "Nolako elikadura, halako nekazaritza".

 LEIRE ARTOLA ARIN  DANI BLANCO

Ohikoa da baserri abandonatuak nonahi topatzea, edota nekazaritza eta abeltzaintzatik urrundu diren baserriak ezagutzea. Hain ohikoa ez dena da baserritarrak euren lurra lantzen ikustea, zer esanik ez 40 urtetik beherakoak, emakumeak eta baserritar estereotipotik aldentuta daudenak badira. Halere, egon badaude, baserrian bizi direnez gain, baserritik bizi direnak ere bai. Baina ez dira nahikoak gizarte osoaren beharrei eusteko, are gutxiago elikadura burujabetza lortzeko.

Datuek erakusten dute azken hamarkadetakoa joera negatiboa. Ipar Euskal Herrian azken 30 urteetan hiru etxaldek batek ez du segidarik izan, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak zehazten duenez. Bidean geratu dira 2.500

etxalde, eta, egun, 4.500 etxalde besterik ez dago Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdi osoan. Hego Euskal Herriko 2020ko Nekazaritza Zentsuak ere beheranzko joera berretsi du. INEK Espainiako Estatuan kalkulatu du nekazaritza-ustiategiak 2009an baino %7,6 gutxiago direla, baina, aldi berean, ustiategi bakoitzaren azalera %7,4 handitu dela. Joera hori errepikatzen da Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan: ustiategi gutxiago baina gero eta handiagoak. Ereditu industrialak nagusitzen ari den seinale. Eustaten 2020ko Nekazaritza Zentsuaren arabera, EAEn 12.919 nekazaritza-ustiategi zeuden 2020an, 2009an baino % 21,8 gutxiago. Aldiz, Landutako Nekazaritzako Azalera %38,4 hazi da EAEn, eta Nafarroan, %13,3.

Abeltzaintzan ere eredu industrialak nagusitu da: espezie guztien ustiategien kopuruak behera egin du, ahuntz-aziendarenak izan ezik. Jaitsierarik handienak hegaztienak (-%67,1) eta txerrienak (-%65,3) izan dira. Aldiz, ustiategi bakoitzeko abelburu-kopuruak gora egin du, ardiaren kasuan izan ezik. Oso esanguratsua da 2009tik 2020ra bitartean txerri-aziendaren ustiategiko abelburuen kopurua %437,3 hazi dela eta hegaztien %186,2. Eta noren esku daude ustiategiak? Ipar Euskal Herrian baserrien herena 50 urtetik gorako pertsonen ardurapean dago. Hego Euskal Herrian ere batez besteko adina altua da. EAEn 57 urte ingurukoa da, eta ustiatzaileen hiru laurdenak gizonezkoak dira.

NPB ETA IRAULTZA AGROINDUSTRIALA

Ez dira kasualitatea aipatutako datuak, baizik eta azken urteetan eman diren hainbat faktoreren ondorio. Adibidez, aurrez aipatutako eredu agroindustrialak, besteren artean Europako Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) hauspotu duena. NPB 1979an abiatu zuten lehen sektorea babesteko, baina 90eko hamarralditik hona izandako erreformak kritikatuak izan dira, batik bat etxalde txikien desagerpena eragin duelako haien dirulaguntza banaketa desorekatuak. Izan ere, NPBk hektareen eta abelburuen arabera dirulaguntzak ematen ditu, gehien duenari gehien emanda, eta horrek lurren eta abereen metaketa sustatu eta ekoizpen agroindustrialei mesede egiten die. Esan gabe doa ekoizpen jasangarrienak tamaina txikian egiten



direnak direla. Etxaldeko Emakumeak elkarteak NPBren “inkoherentziak” argi utzi ditu: “Ezin da aldi berean ekoizpen eredu agroindustriala sustatu eta klima aldaketaren kontrako politika garatu”. Elkarteko baserritarren esanetan, hektareen arabera banaketa “erabateko kontraesanean” dago NPBren helburu teorikoekin; izatez, xedetzat ditu belau-naldien erreleboa, landa inguruko biziberritzea, inklusio soziala, eta bioaniztasunean oinarritutako ingurumenaren babesa, besteak beste.

Horrez gain, Etxaldeko Emakumeek diote NPBk are gehiago maskulinizatzen duela lehen sektorea, eta emakumeak bazterrean utzi. Nekazaritzako laguntzen genero arrakala adierazgarria da: NPBren hartzaileen %31 besterik ez dira emakumeak, eta, gainera, proportzioan gizonezkoek baino dirulaguntza eskasagoak jasotzen dituzte, zeren emakume titularrek ustiategi txiki edo ertainak izan ohi dituzte, eta eredu iraunkorragoak.

ERRELEBOA ETEN DUTEN FAKTOREAK

Iritzi berekoa da Mirene Begiristain agroekologian aditua: NPBk nekazaritza eredu jasangarriak zigortzen ditu, eta emakumeen lana ez du balioan jartzen. Lehen sektorea “despatriarkalizatzeko” lan handia egiteke dagoela azpimarratu du, hala nola landa eremuko zaintzak demokratizatzen, lurren titulartasuna berdintzen eta ekoizpen lanen banaketa orekatua egiten. Begiristain EHUko ekonomia irakasle eta ikerlaria da, eta urteak daramatza lehen sektorearen gain-behera gertutik ikertzen, besteak beste. Biolurreko eta EHKolektiboko kidea da, eta nekazal mugimenduko eragileekin egindako lanaren ondorioz ondo identifikatuta ditu errelebo faltaren zergatiak. Hiru oztopo nagusi bereizten ditu: lurra eskuratzeko zailtasuna, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa eta baserritarrekiko errekonozimendu falta.

Lehen sektorean hasi nahi duten pertsonak zailtasun handiak dituzte nekazaritzarako lur egokiak topatzeko. Begiristainen esanetan, lurraren artifizializazioa eman da azken urteetan, lur falta dago, eta lurraren kontzentrazioa lehenesten da, NPBren politiken bidez. Horri lotuta dago proiektuen bideragarritasun ekonomikoa: lurra alokatuz gero, ordainketa ez da bideragarria. Hau da, lurraren jabetza ez bada oinordekotzan jasoa, nekazarien errentarekin

“Trebagunearen ideia da norbaiti parada ematea bere proiektua entseatzeko zinez egiazko baldintzetan, egiazko etxalde batean, eta legezko kontrol baten baitan”

Kattalin Sainte Marie

Trebatuko koordinatzailea

“oso zaila eta konplexua” da alokairuan mantentzea. Begiristainek ikertutakoaren arabera, nekazarien batez besteko errenta ez da heltzen karta sozialak jasotzen duen 1.080 euroko gutxienerora “kasu gehienetan”. Hortaz, zailtasunak dituzte lehen sektoreak eskatzen dituen inbertsioak egiteko.

Bi oztopo horiei hirugarrena gehitu behar zaie: jendartean ez du behar bezalako aitortzarik baserritarren lanak. Bizimodu duintzat dugu baserriko bizitza? Lan lotua eta gogorra dela esateaz gain, zer ezagutzen du edozein herri-tarrek nekazaritza eta abeltzaintza la-

naz? Nork nahi du bere alaba edo semea baserritarra izatea? Begiristainek dio baserri biziak ez duela bat egiten gaur egungo bizimodu hegemonikoarekin, zeren bizitza arrakastatsua lotzen baita oporrek, norbanakoaren lorpenekin, eta abar. Beraz, jendartean ez dago errekonozituta baserriaren baitan bizitza garatzeko aukera. “Beste erritmo bat duen bizimodua da, irregularra, baina beste aukera batzuk eskaintzen ditu: zuk hartzen dituzu erabakiak eta erritmoak markatu, beste lan batzuetan ez duzun autonomia duzu...”, deskribatu du Begiristainek. Halaber, gogorarazi du baserri biziak eredu berriak agertzen ari direla, eta egungo bizimodura egokitzen ari direla; teknikak hobetu dira, ekoizpenaren gaineko jakintza handiagoa da, eraginkorragoa, norbere denbora libredu edukitzeko aukerak daude, ordezkapen zerbitzuak daude oporrak hartzeko... Eta baserriko familia eredu zurrunik at, lurra kolektiboki lantzeko proiektuak ere gero eta ohikoagoak dira.

Baserri biziak akats zaharrak errepikatzea saihesten ari dira, eta sektorea moldatzen, baldintza hobekitzeko. Bide horretatik, Begiristainek ezinbestekotzat jo du euskarri sozialak garatzea eta artikulatzea. Alegia, administrazio publikoen dirulaguntzez harago, baserri biziak euren artean antolatuta egotea. “Laguntza sozial handiagoak falta direnez, oso inportantea da gure artean zaintzea eta laguntzea, eta baserri biziaren arteko kolektibo baten parte izateak babes hori ematen dizu”.





ZURKAITZEN BABESEAN TREBATU

Ipar Euskal Herrian aspaldidanik hasi ziren saretzen landa eremuko pertsonak eta eragileak, eta emaitza Hego Euskal Herrian baino hobea izan da. Horren adierazle da Trebatu proiektua, Frantziako Estatuko RENETA proiektua erreferentziatzat hartuta abiatu zutena 2016an, eta ordutik laborari gazteek ofizioa ikasteko eta probatzeko aukera dute Trebaturen bidez, elkarrekin lanean dauden hamar eragile eta erakunde publikoren babespean. Trebatun horixe egiten dute, trebatu; trebetasunak ikasi, trebantzia edo konfiantza hartu, eta, esperientzia horren arabera, etxaldean instalatu nahi duten edo ez erabaki. Kattalin Sainte Marie proiektuko kudeatzailea da, eta laborari berriei bidean lagutzen die. Daniel Barberarena, berriz, laboraria eta Euskal Herriko Laborantza Ganbarako (EHLG) ordezkaria da Trebatun. Biek kontatu dizkigute proiektuaren onurak, Trebatuko Aurélie Sausset parte hartzailearen Ahurtiko (Lapurdi) lur landatu berrietan.

Trebatuko sarea soka desberdinez lotuta dago, guztiak elkarren osagarri, eta bertan ordezkatura daude laborantza arloko elkarteak, sindikatuak, formakuntza profesionalerako taldeak, tokian tokiko erakunde publikoak eta kontsumitzaileei lotutako ekonomia sozial eraldatzailearen ordezkariak, besteak beste. Sainte Mariek eta Barberarenak diote denak naturalki elkartu zirela proiektuan, elkarren beharra baitzuten bi hutsune nagusiri erantzuteko: bate-tik, errelebo falta eta etxaldeen segida eza, eta, bestetik, laborantza mundutik kanpotik zetozen gazte berriek etxaldeetan instalatzeko zituzten gabeziak. Konturatu ziren landa eremuan bizi ez ziren gazte gero eta gehiagok hasi nahi zuela nekazaritzan, baina zailtasun asko topatzen zituztela. “Murru baten kontra jo izan dute instalatutakoan, eta horrek motibatu gintuen proiektua martxan jartzera”, zehaztu du Barberarenak. Mirene Begiristainek aipatzen dituen hutsune berberak ikusten zituzten: lur falta, diru gehiagoren beharra zerotik hasten direlako inbertitzen, ezagutza

tekniko handiagoaren beharra, eta sare baten falta, batik bat.

Trebatun aterabidea aurkitu dute. Trebagune finkoetan (denbora baten ostean ikasleak aldatu egiten dira) eta trebagune bakarretan (denbora baten ostean ikasleek lur horietan instalatzeko aukera dute) egiten dute lan: “Trebagunearen ideia da norbaiti parada ematea bere proiektua entseatzeko zinez egiazko baldintzetan, egiazko etxalde batean, eta legezko kontrol baten baitan”, laburbildu du Sainte Mariek. Lau funtzio betetzen ditu Trebatuk. Lehena, mintegi funtzioa, trebagune fisikoei dagokiena. Bigarrena, laguntza eta segipen funtzioa, non laborari gazteak beste laborari “zurkaitz” bat izango duen euskarri eta erreferente gisa, eta inguruko herritarrez osatutako sustengu sare bat egiten lagunduko dioten. Hirugarrena, inkubagailu funtzioa, arlo juridikoa eta fiskala eramango diona, alegia, trebatzen ari den bitartean ahalbidetuko diona Trebaturen izenean legez jardutea eta maileguak jasotzea, hasieratik norbere enpresa abiatu beharrean. Eta lau-



garrena, koordinazio funtzioa, Kattalin Sainte Marieren ardurapean dagoena; hala nola administrazio lanak eta kanpo zein barne komunikazioa bideratzen ditu, eta laborariek harremanetan dago uneoro.

“Ondo hasteko tresna guztiak dituzte”, dio Sainte Mariek. “Gure helburua da hastapenetik gazteen prekaritatea saihestea”, gehitu du Barberarenak. 2016tik hamabost lagun pasa dira trebagunetik: lau trebatzen ari dira, batek atzera egin du, eta beste hamarrak instalatu dira edo bidean daude. Biek azpimarratu dute “biziki inportantea” dela Trebatuk eskaintzen duen atzera egiteko aukera, “hori baita atzera egiteko mementoa”, alegia, oraindik instalatu gabe eta leporaino zorpetuta egon aurretik. Ez dute hutsegite gisa ikusten, eta garrantzitsua deritzote norberari ofizioa hautatzeko aukera eskaintzea; Trebatu baserritar ofizioa eta bizimodua probatzeko aukera ezinhobea da, “egiazkoa” delako.

LANDARE AROMATIKOAK BIZIBIDE

Aurélie Sausset baionarrak Trebatu parte hartzeko baldintzak betetzen zituen: gutxieneko formakuntza du laborantzan, gutxieneko diru iturri baten bermea du inbertsioak egiteko, baina ez

Bizimodu duintzat
dugu baserriko bizitza?

Lan lotua eta gogorra
dela esateaz gain, zer
ezagutzen du edozein
herritarrek nekazaritza
eta abeltzaintza lanaz?

Nork nahi du bere
alaba edo semea
baserritarra izatea?

zuen ez lurrik ez laborari sarerik. Beraz, Lurzaindiaren esku dauden Ahurtiko lurretan ari da bere proiektua entseatzten: landare aromatiko freskoak ekoizten ditu, jateko direnak. Duela urtebete hasi zen proiektuan burua sartzen, eta ia bi hilabete darama eskuak ere bertan sartuta. Burua beteta duela aitortu du, baina Trebaturen eta Lurzaindiaren babesik gabe gainezka izango lukeela dio.

Haien laguntzak lasaitasuna eman dio Sausseti, eta horrek “lanean kontzentratzeko” abagunea utzi dio, eskuak lurrean zikintzekoa. Gainera, lantzen ari den lurrak badu beste berezitasun bat: alboan bizi da lehen lur horiek lantzen zituen baserritarra, jada erretiratua, eta haren laguntza asko eskertzen duela dio. Saussetek bertan trebatzen jarraituko du, eta baratze-baratze proiektua garatzen joango da. “Momentuko eskaeraren arabera ekoizpena moldatzen joan nahiko nuke”, aurreikusi du.

ELIKADURA ESTRATEGIAK DIRA GAKOA

Aurélie Saussetek dio eskaeran erreparatuko duela ekoizpena erabakitzeko. Beraz, hori da agintzen duena, herritarren eskaria? Ala nekazarien eskaintzak baldintzatzen du jaten duguna? Mirene Begiristainen esanetan, ez batak, ez besteak; “kapitalismo berde digitalaren mende” eskatzen eta eskaintzen dugu uzta eta elikagaia. Alegia, merkatuak erabakitzen du zer jaten eta zer lantzen dugun, eta hori natura sistemak sunsitzean oinarritzen da, hainbat ikerlariren teoriak diotenez. Izozmendi bat irudikatzea bezalakoa da: ikusten dena da supermerkatuetara banatzen dena, kapitalismoari mesede egiten diona, eta ur



azpian daude ekoizpena eta kontsumoa; ur sakonetan itota, aldiz, natura eta ingurumena.

Bada, Begiristainek dio lehen sektorea biziberritzeko gakoetako bat dela izozmendi hori apurtzea. Haren arabera, ekoizpenaren (baserriarrak) eta kontsumoaren (herritarrek) artean aliantzak sortu behar dira, eta haien arabera aldatu behar da gainerakoa; banaketa edo merkaturatzea “traktore” gisa irudikatzen du, hots, instrumentala den zerbait. Hiru salmenta bide azaldu ditu: zuzenekoa, herritarren eta ekoizleen arteko harremana eskatzen duena; kontsumo taldeak, Euskal Herriko hainbat herritan eratzen ari direnak; eta denda txikiak nahiz kontsumo kooperatibak. Oso argi du hori dela hartu beharreko bidea, baina horretarako politika publikoen laguntza beharrezkoa dela.

Tokian tokiko elikadura estrategiak garatzeko eskatzen die erakundeei. “Guk esaten dugu: ekoizpen duina, kontsumo herrikoia”. Bide hori irekitzen hasi dira zenbait udalerrri, eta administrazio publikotik tokiko elikagaiak erosten dira, ikastetxeetarako, zaharren egoitzetarako, zein ekitaldi publikoetarako otorduak prestatzeko. Modu horretan, bermatzen dute elikagai osasuntsuak izango direla gutxienez diru publikoare-

Europako dirulaguntzak hartzen dituztenen %31 besterik ez dira emakumeak, eta, gainera, proportzioan gizonezkoek baino dirulaguntza eskasagoak jasotzen dituzte

kin erositakoak. Ez hori bakarrik, Begiristainek eredu berriak ere azaleratzen ditu, esaterako, udalerriko lurraldeko lanpostu publikoak eskaintzea. Izan ere, baserrien gainbeherak geldiezin dirudi, baina batik bat egungo bizimoduak horretara bultzatu duelako, ezinbestean. Erroetara joatea eskatzen du lehen sektorearen auziak, eta erronka berriak planteatzea. Laborantzian dabiltzanek badakite nondik abiatu: “Nolako elikadura, halako nekazaritza”. ●



mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Ikaslearen jokabidea aldatzen saiatu ordeztu, ingurua aldatu dezagun”

Gema Lasarte eta Beatriz Garai

Hurtzaroen adbertsitateak bizi izan dituzten hurrek motxila zamatuta eramaten dute eskolara, eta eskolan bizi duten esperientziak are gehiago zamatatu ohi die motxila. Egoera hauetan hezkuntzak eta hezitzaileek egin dezaketenaz mintzatu zaizkigu Gema Lasarte eta Beatriz Garai EHUko irakasleak. Uztailean ikastaroa antolatu dute gaiaren inguruan. “Haur hauek ez dute matematika gaintitu behar, jolas-garaia gaintitu behar dute”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DOS POR DOS

Adbertsitatea jasan duen haurraz ari garenean, zertaz ari gara zehazki?

Gema Lasarte: Adverse Childhood Experience (ACE) kontzeptu anglosaxoitik dator. Horren arabera, hurtzaroen badiara adbertsitate batzuk, izan daitezkeenak familiaren disfunczioen ondorio edo bestelakoak: hala nola bazterketa fisiko edota emozionala jasan duten haurrak, sexu gehiegikeriak pairatu dituztenak, genero edo bestelako indarkeriaren biktimak, gurasoen droga arazoren bat edo haien kartzelaratzeari bizi dutenak, hondamendiren bat jasan dutenak, haur LGTBak, migratu duten umeak... Adbertsitatea edonori gerta dakioke eta trauma bilakatu daiteke, pertsona berari adbertsitate bat baino gehiago metatzen bazaizkio edota gaia ongi bideratzen ez bada. Adbertsitateek sozialki duten estigma ere hor dago.

Hezkuntzari lotuta, eskolan baditugu ikasle “normalizatuak”, alegia eskolaren martxa ongi daramatenak; baditugu ikasle patologizatuak, berezitasunen bat dutelako diagnostikoa jaso eta laguntza dutenak; eta badugu linboan dagoen ikasle multzo bat (anglosaxoien azterketen arabera ikasleen %15 inguru) diagnostikorik ez duena baina eskolan ongi ez dabilena, adbertsitatearen bat bizi duena. Psikiatrian, neurozientzietan eta medikuntzan landu ohi den esparrua da, baina hezkuntzan apenas.

Beatriz Garai: Heldu batenganako atxikimendua izatea, haurrak babesa izatea, funtsezkoa da, deskribaturiko egoera horiek amaitu ez dezaten trauma izaten eta helduaroan benetako arazo larri bihurtu ez daitezten. Baina batzuetan babesa eman behar lizukeena da eraso egiten dizuna...

Zaila da deskribaturiko egoera gogor horien biktimak eskolan identifikatu gabe daudela irudikatzea...

Lasarte: Bai, gogorrenak aipatu ditut, baina adbertsitatedun haur asko dago eskolan linboan. Oraintxe aztertzen ari naiz ikastetxean sekulakoak egiten zirela haur baten kasua, eta denaren jatorria bere gurasoen banantze bortitza zen. Denborarekin konturatu dira gurasoen atxikimendua ez zela ona. Kartzelaratutako gurasoen esperientzia ere oso hurbilekoa zaigu Euskal Herrian, eta espetxeratze horiek ez dira doakoak, ume motxiladunak ditugu, zama bat duten umeak, baina hor ere familiek emandako zaintza, atxikimendua eta babesa funtsezkoa da. Eskolak bide horretan lagundu egin behar du. Eta egoerarik okerrenean, haurrak etxean ez badu maitasunik, eskolak atzeman behar du



Gema Lasarte (ezkerrean) eta Beatriz Garai.

eta eskolak eman behar dio bigarren aukera bat haur horri.

Garai: AEBetan esaterako, giza eskubideen elkarteek bultzatuta hasi ziren halakoak aztertzen. Ikusi zuten institutuetan zenbat beltz eta latino kanporatzen zituzten eta nola horietako askok gero kartzelan bukatzen zuten. Justizia sozialaz ari gara, sakonengan gai honek planteatzen duelako pertsona hauei eskolak ematen dien tratua ez dela bidezkoa, hori aldatu behar dela.

Zer diote adbertsitatedun haurren familiek seme-alabei eskolak egiten dien harreraz?

Garai: Espainiako Estatuan galdegegria pasa diete adbertsitatea bizi duten familia eta haurrei, eta emaitza horiek aztertuta, eskola-porrota eta tratu txarrak oso ohikoak dira hezkuntzan. Arazoak dituzten ikasle hauen erreakzio automatikoa da isolatzea edo jokabide bortitzetara jotzea, eta horren aurrean eskolak zigortu edo kanporatu egiten ditu, baina hori da mutua den pertsonari hitz egin dezala eskatu eta hitz egiten ez duelako zigortzea bezala. Eskolak ez du ulertzen adbertsitatea bizi duen ikaslearen erreakzioa beldurrak eta minak sortua dela, ez dela apropos egiten duen zerbait. Gainerako ikas-kideekin eta irakasleekin harreman txarrak izatea ere ondorio garbia da.

Lasarte: Beatriz eta biok gara irakasleak eta adoptatutako seme-alaben gurasoak, eta gure seme-alabek eskolan bizitako esperientziak abiatu ditu ikerketa hauek guztiak. Gure hurrek bullyinga jasan dute eskolan, sufritu egin dute eskolan, eta aditu askok dioten moduan, haur hauek ez dute matematika gaintu behar, jolas-garaia gaintu behar dute. Aldiz, beste begietara arraro eta berezi diren haurrak seinalatu egiten ditu eskolak, dieran jartzen ditu, eta bakardade hori, bazterketa hori barneratzen dute eurek. Autokontzeptu hori leuntzea, laguntzea eta akonpainamendua egitea da eskolak egin behar duena, gurasook ezin dugulako etxetik akon-

painamendu hori egin, ezin dugu ikastetxean sozializazio horretan lagundu.

Ez al dute irakasleek halakorik egiten?

Lasarte: Adbertsitatea bizi duen haurrak arreta berezia behar du eta horretan instituzioek lagundu behar dute. Babes politika interesgarriak bideratzen dira familietara, baina gero haurrak eskolara bidaltzen ditugu eta eskola ez badago formatuta, akabo. Gaur egun haur hauek eskolara bidaltzea da bakardadera eta bazterketera kondenatzea. Eta jakina badaudela sentsibilitate berezia duten irakasleak, laguntza emateko prest daudenak, nire semeak halako irakasle bat zuen eta harengana jotzen zuen beti, baina ez da zerbait orokortua.

Garai: Gaizki portatzen den umea gaiztoa dela-edo pentsatzen da, jokabide horren atzean egon daitekeena-ri erreparatu beharrean. Informazio, kontzientziario eta sentsibilitate falta handia dago gai honetan, ezezagutza delako nagusi, baina ez da irakasleen errua. Irakasleek behar dute formazioa eta laguntza, sarri bakarrik geratzen direlako gelan, ikasle askorekin eta estres handiarekin. Badirudi irakaslearen lana edonork egin dezakeela eta ez duela garrantzirik, baina irakasleak ongi formatuta egon behar du eta baldintza eta gaitasun batzuk behar ditu, eginkizun oso inportantea du.

Lasarte: Irakasle izateko prestatzen ari den 19 urteko ikaslearen gradu amaierako lan batean proba egin dut aurten. Hainbat adierazle kontuan hartuz ikastetxe batean jarri nuen 215 ikasle behatzen, ea gauza zen adbertsitatea bizi duten ikasleak antzemateko. Hamabost identifikatu zituen, ikastetxeko orientatzailearekin partekatu zituen izenak eta horietatik zortzi begiz jota zituzten etxean arazoak zituztelako; gainerakoek teoriarik ez zuten arazo pertsonalik. Alegia, batetik, adbertsitatea duten haurrak identifikatzea badagoela; eta bestetik, badirela gatazkatsuak diren ikasleak ere, eskolan jokabide despotikoak dituztenak, lidergo izugarria bilatzen dutenak, nahi dutena egin dezaketela uste dutenak... eta ez dutenak zertan adbertsitatea bizi; agian ez dute ikasi limiteak errespetatzen.

Adbertsitatea bizi duten haurrak eskolara bidaltzea ikasle horiek kondenatzea dela aipatu duzue. Nola jokatu beharko luke eskolak haur hauekin?



“

Besteen begietara arraro eta berezi diren haurrak seinalatu egiten ditu eskolak, dieran jartzen ditu, eta bakardade hori, bazterketa hori barneratzen dute eurek”

Gema Lasarte

Garai: Gaia gehiago landu duten anglosaxoiek darabilte Traumaren Paradigma delakoa, ez bakarrik hezkuntzan, baita gizarte zerbitzuetan, osasunean eta beste hainbat sektoretan ere. Britainia Handian adibidez 300 eskola publikotan ikuspegi horrekin ari dira lanean, irakasleak eta eskola-komunitateak formatzen. Funtsean, lantzen dituzte segurtasuna, babesa eta esperientzia eta

harreman positiboak, abiapuntu argi batekin: planteatzen da aldatu behar dena ez dela ikaslea, ingurua baizik, komunitatea. Aldatzen bada metodologia eta egitura, beste era batera planteatzen bada hezkuntza, ikaslea ere aldatuko da. Gurean metodo konduktiboa da nagusi: ongi portatzen den ikasleari izartxoia eta gaizki portatzen denari zigorra, ikaslearen eragiten da; bada, inguruan eragitea jartzen du helburu aipatzen dugun esperientziarik. Ikaslearen jokabidea aldatzen saiatu ordez, ingurua aldatu. Ildo horretan, hemen esperientzia partzialak baiditugu, bigarren aukerako eskolak, diziplina positiboa... baina ez paradigma horri erantzuten dion planteamendu orokorrik. Irakaslearen eta komunitate osoaren begirada aldatzea eskatuko luke, ez da erraza.

Lasarte: Gertuago ere bada halako esperientziarik. Murtzian adibidez “eskola zaintzaileak” eredu jarraitzen ari dira, aipaturiko filosofia oinarri, eta uztailean antolatuta dugun ikastarora etorriko dira guztiaren berri ematera.

Halako planteamendu orokor baten alde ona da ikasle guztiak hartzen dituela kontuan. Azken finean, denok gara edo izan gaitzke uneren batean zaugarri...



Garai: Bai, egitura, metodologia eta ingurua aldatzea mesedegarria delako ez soilik adbertsitatea bizi dutenentzat, guztientzat baizik. Esperientzia eta harreman positiboetan, babesean eta ziurtasunean oinarritutako testuingurua denentzat da onuragarria.

Lasarte: Hemen badugu hitz oso neoliberalak, inklusibitatea, diskurtsoa ere sortua dugu horren inguruan eta legalki eman diogu erantzuna, baina errealtatean hutsaren hurrengoa da. Inklusibitatea baldin bada bakoitzari ematea bere beharren baitan behar duen hezkuntza, gezurra da hala egiten denik. Gela berean ikasle andana duzunean, nola demonio asmatu inklusibo egiteko? Eta jakin badakigu adbertsitateak, koloreak, hizkuntzak... uztartzeak eta sinergia egiteak elkar aberasten gaituela, ekosistema elkar elikatzen dugula, baina horren ordez bi errailtako hezkuntza sortzen ari gara, hezkuntza segregatua. Saillkatzen gaude etengabe: neskak, mutilak, gizenak, aberatsak, pobreak, tuntunak, azkarrak... baina denok dugu zerbait ikasteko eta erakusteko.

Garai: Egia da zaila dela ikasle askorekin guztian erreparatzea, baina irakasle gisa saiatzen ari gara begirada aldatzen. Pandemiarekin, esaterako, 19-20 urte-

“

Egitura eta metodologia aldatzea mesedegarria da ez soilik adbertsitatea bizi duten ikasleentzat: esperientzia eta harreman positiboetan, babesean eta ziurtasunean oinarritutako testuingurua denentzat da onuragarria”

Beatriz Garai

ko ikasleak etorri zaizkit bulegora beren arazoak kontatzen, negarrez... eta inoiz ez zait halakorik gertatu, baina ikasle izateaz gain pertsonak ere badira aurrean ditugunak. Jarrera sentsibleagoa edo gutxienez haiek entzuteko jarrera irekia ikusi dutelako etorri dira nigana, bestelako begirada bat elikatzen dugu-

lako, eta hori garatu beharko genuke irakasleok, ikasleei babesa ematea eta benetan haiei entzutea funtsezkoa da.

Paradigma aldaketa etorri bitartean, ikasleei akonpainamendu hori ematea ez da gutxi. Ongi eramandako kasuen adibideak jartzetik baduzue?


Lasarte: Badira gai honetan formatuta dauden irakasleak, eta horiek ongi erantzun ohi diete ikasle hauen beharrei. Badakite haur hauek errutinekin arazo handiak dituztela eta errutinak sortu behar zaizkiela, arauak jarraitzen eta erabakiak hartzen ikasi behar dutela, beraien arteko errespetua landu behar dutela, aldaketei izugarritzko beldurra dietela eta beraz tentuz jokatu behar dela halakoetan, autonomia eta empatia garatzeko zailtasun handiak dituztela, emozioak doitzen lagundu behar zaiela... Horren aurrean zer egin behar duen irakasleak? Ikasleari segurtasuna eman, zaintza eskaini eta hari entzuteko irekita dagoela adierazi, esperantza dagoela iragarri, motibatu... Ikastetxe guztietan topatuko dituzu beren burua prestatu duten eta sentsibilitate handia duten irakasle eta orientatzaileak, baina gutxiengoa dira, ez delako sistemaren baitako zerbait, norbere kabuz egindako ibilbidearen emaitza baizik.

“Hautzaroan adbertsitateak bizi izan dituzten umeen eskolaratze prozesuak ikertzen eta laguntzen” ikastaroak antolatuko dituzue EHUn, uztailaren 13tik 15era.

Lasarte: Lehenbiziko egunean, gaia kokatu eta ikerketen berri emango dugu: adbertsitatea edo atxikimendu arazoak daudenean zer egin, harrera eta adopzio familiek nola bizi duten beren haurren eskolaratze prozesua eta hezitzaile sozialak eskolan sartzeko aukera, Zuian aztertzen ari garena –hezitzaile sozialen begirada oso baliagarria litzatekeelako ikastetxeetan–. Bigarren egunean, gaian aditu direnak arituko dira, batez ere psikologoak, eskolaratzeaz, atxikimenduaz eta atxikimendu ezaz, sexu gehiegikeriez... Eta azken eguneko mezua da adbertsitateak baduela irtenbidea, eta irakasle erresilienteak eta hainbat esperientzia ezagutuko ditugu, bai bertakoak, bai Oxford eta Murziakoak. Gure helburua da deserosoa den gai hau mahai gainean jartzea, denok garelako hein batean erantzule.

Garai: Eta ikastaroa izan dadila eztabaidatzeko eta sinergiak lortzeko foroa. ●

Babiloniako esklaboen burbuila




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Babilonia, duela 3.750 urte inguru. Hammurabi erregeak 282 legez osatutako kodea jarri zuen indarrean. Zigorretan “begia begi truk” edo talioiaren legea oinarri hartu arren, kodeak lege “aurrerakoiagoak” ere biltzen ditu: errugabetasun presuntzioa aintzat hartu zuen lehenengoz eta, esaterako, dibortzio kasuetan, emakumeei luzaroan ukatuko zitzaizkien eskubideak aitortzen zizkien. Kodearen beste lege batek, esklabotza boluntarioa gehienez hiru urtera mugatzen zuen.

Berez, kontzeptu kontraesankorra dirudi esklabotza boluntarioak, baina Mesopotamian herritar libreek zorrak kitatzeko tarte batean esklabo moduan lan egiteko aukera zuten. Eta Babiloniaren garaian, zorra arazo larria bihurtu zenean, asko erabili zen aukera hori, gehiegi. Lehenago, sumertarren aroan, mailegu-emaile nagusiak tenplu erlijiosoak ziren, baina garai ezegonkorragoak eta zatikatuagoak iritsi zirenean, mailegatzaile gehienak pribatuak izan ziren. Oholtxoetan idatzitakoa aintzat hartuta, tenpluek gehienez %3ko interesa kobratu ohi zuten, eta mailegatzaile berriak, aldiz, %22kora ere iritsi ziren. Epeak asko estutu zituzten, gainera; bi hilabete eskasekoak ere geratu dira jasota idazkuntetan. Aberatsentzat interes baxuagoak eta epe luzeagoak –bost urterainokoak– ezarri arren, zorpetutako herritar xeheek esklabotzara jotzea beste erremediorik ez zuten.

Mailegu-emailentzat pagotxa zen hura, interes handiak eta doako eskulana erraz lortzen baitzituzten. Gainera, diru zorroak gehiago gizentzeko, zorrak bitartekoei edo hirugarrenei saldu ohi zitzaizkien, gehienetan herritar aberatsei edo beste mailegatzaile batzuei. Hala burbuila modukoa eragin zuten, gaur egun “zor-pakete” esaten diegunen bidez. “Zabor zor” deritzenak ere bazituzten, zor asko ordaintzea ezinezkoa baitzen. Esaterako, esklabo boluntarioek berriro askatasuna lortzeko beste mailegu bat eskatzeko aukera zuten, eta hala, gurpil zorotik irteteara geratzen eta zailagoa zen haientzat.

1922 eta 1934 urteen artean, Sir Leonard Wolley arkeologoa Ur hirian indus-



Hammurabiren kodeak esklabotza boluntarioa gehienez hiru urtera mugatzen zuen legea jaso zuten, zorren burbuila kontrolatzeko helburuarekin.

keta lanak egiten aritu zen. Sumerren amaierari eta babiloniar aroaren hasierari zegokion geruzan auzo berri bat aurkitu zuten, hiri zaharretik kanal batez berezita. Errege familiaren edo nobleziaren jauregi ederrik ez zegoen han, baina bai auzo txiroetan aurkitzen ez ziren solairu bat baino gehiagoko eraikinak, komunak eta bestelako luxuak. “Aberats berrien” auzoa zen. Bertan bizi ziren Dumuzi-Gamil enpresaria eta Shumi-Abiya bazkidea. Okindegien eta gari hornikuntzaren negozioan aritzeaz gain, mailegutzan ere jarduten zuten. Lehenengoaren etxean negozioen kontabilitatea eta gutun mordoak aurkitu zituzten, oholtxoetan jasota; hemen aipatutako datu gehienak hortik daude aterata.

ZORRAK BARKATZEKO SISTEMA

Bankari berrientzat mauka ederra zena, oso txarra zen babiloniar ekonomiarentzat. Zorpetutako esklabo boluntarioek beren ohiko lana utzi behar zuten: nekazariak lurrak landu gabe uzten zituzten, artisauek ez zuten ekoizten eta merkataritxikiek negozioak eteten zituzten... eta, gainera, zorrak ordaindu gabe geratzen zi-

ren. Gutxi batzuk artifizialki aberasten ari ziren, gehienek kalterako. Eta, gaur egun bezala, orduan ere burbuila ekonomikoak ezin zuten betirako iraun.

Atarian aipatu bezala, Hammurabik egoera kontrolatzeko neurriak hartu zituzten, esklabotza boluntarioaren epea mugatuz. Baina agintariek neurri gogorragoak ere hartu zituzten, zorrak baliogabetzeraino. Horixe egin zuten, esaterako, Larsako Rim-Sin erregeak, Babiloniako hainbat hiri kontrolpean izan zituena, hain zuzen, Hammurabik berak mendean hartu zuen arte. Rim-Sinek zorrak barkatzeko sistema zorrotza ezarri zuen, eta “bankari” berriek behar bezala nozitu zituzten ondorioak. Wolleyk Uren duela mende bat aurkitutako auzo aberatsak gainbehera nabarmena izan zuten, arrasto arkeologikoen agerian uzten dutenez.

Aldeak alde, Babilonia zaharreko burbuilak eta egungoek antzeko ezaugarriak dituzte, baina baita desberdintasun nagusi bat ere: agintarien erantzuna. Duela lau milurteko errege zaharkitu haiek ez zituzten bankariak erreskatatu. ●

HEMEROTEKA

Zuri-beltzaren gainetik, zuri-gorria

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA



RUBEN PLAZA

Duela 25 urte irten ziren lehen aldiz emakumea Irungo alardean, urtebete lehenago egindako saiakeraren ostean. Goian, hastapen horietako argazkia, 2000. urtekoa; eskuinean 1997ko irudia, aurtengo egutegiko efemeridean.



Halaxe dirudi bukatu ez den eztabaidak. Zuri-beltzekoa. 1997ko ekainaren 30eko argazkia bezalaxe. Ordurako ondo sartua zegoen kolorea analogikoan, ez horrenbeste zenbait burutan. Efemeride honekin egin dut topo egutegian, urteurren borobila aurtengoa Irunen, eta aztarka hasi naiz, zer topatuko orduko ARGIA zaharretan. Eman ote zioten lekurik aldizkariko lefroetan? Zein izan ote zen tonua?

Topatu ditut pare bat iritzi artikulu. Bata ekainaren 30 seinalatu hartako datarekin argitaratua eta bestea uztailearen 6ko zenbakian; Jose Inazio Ansorenak eta Luix Barinagarrementeriak sinatuak, hurrenez hurren. Garaian kokatzeko baliyo izan didate. Ansorenak bi tradiziozale

motaz hitz egiten zuen. "A Tradiziozaleak ohiturak eta erritoak isolatu egiten ditu, ez ditu garai bateko pentsamolde, sozietate eta kultura osoan integratuta eta erlatibizatuta ikusi nahi. (...) Bere esaldi maiteenetakoa hauxe da: *pasatako garaiak beti hobekak*. (...) B Tradiziozaleak, berriz, esaldi hau hartzen du goiburur: *humanoen mugak zein diren ezagututa ere, ahaleginduko naiz datozen garaiak hobetzen*. Eta horregatik tradizioa pasatako garaien EKARPENA denez, bertan alderdi onak eta txarrak ikusten ditu, aprobetxatzeko modukoak eta arbuizatzeak, eta galbahetik pasatzeko beharra aldarrikatzen du". Hogeita bost urteren ondoren ere, nahikoa aktualak, aktualegiak diren hitzak.

ARGIAk Euskal Herria Zuzenean festibala babestu eta antolatzaileekin egindako harremanaren ondorioz, *Beranduegi* podcastak bina txartel bikoitz banatu ditu uztailearen 1, 2 eta 3an Irisarrin egingo den jaialdirako.

Baina ez da zozketa arrunta izan. Galdera honi erantzun behar izan diote audio mezu bidez: zer gehituko eta kenduko zeniekete EHZri? Gainera, norberaren euskaltitik gehien urruntzen den euskaltian erantzutea baloratu dute poscastaren arduradunek, "kilometrikoki zein espiritualki".

Zumaiaiko Maddik eta Legazpiko Malenek irabazi dituzte txartelak. Lehenak ondarrutarez erantzutegatik ("ondo ulertu badugu behintzat") eta bigarrenak lapurteraz eta zubereraz erantzuteko egindako "fusio ahalegintegatik".

Lehiaketan parte hartu duten guztiei eskerrik eman dizkiete: "Hurrengoan ere zuen ahotsa gehitu nahiko genioke *Beranduegi*-ri".



1996ko eta 1997ko urte haietan Irunen eta Hondarrribian izugarrizko tira-birak piztu zirela esatea ez da ezer berria. Alardepublico.org webguneko "Historia" atalean, adibidez, hemen eman dezakedana baino informazio sakonagoa topa dezakezue orduko egoerari buruz. Dakidana da orduan piztutako liskarra baretzen saiatu ez eta gainera sua pizten aritzeagatik hurrengo urteetan ere hobetuko ez ziren tentsioak eragin zituela batzuen jarrerak. Gaur arte dirauten haserreak.

ARGIAk bere fototekan lehen urte hartako argazkirik ez badu ere, 2000. urtekoak baditu gordeta eta nahikoa erakusten dute: alarde mistoa ertzainez inguratuta. ●

LIZARRA, ESKUTADA BETE ETEKIN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Berritu dugu etxeko ate-etxeen ha-beetako lizarra (*Fraxinus excelsior*). Zenbait tokitan elorri zuria jartzen dute (*Crataegus monogyna*). Egun luzeenak ospatzen ditugu orain, baita eguna mozten den arteko datozen sei hilabeteotan negurako bildu eta jasoko ditugun uztei bide ona opatzea ere, geure onerako, noski. Gurtzarako zerbaitegatik erabiliko dugu lizarra. Hori ez da egun batetik besterako asmakizuna. Lizarra zuhaitz sakratua da, kristauek ere badakite ez dagoela bedeinkatu beharrik. Etxe ondoan izaten dugu eta itzalaz gain makina bat etekin eskaintzen digu: tximistak uxatu, egur eta zur ona eman, larreak agortzen direnerako harmenetan biltzen den aziendarentzako bazka, eta abar. Bizitzeko ingurukoaren premia izan dugun artean, lizarra gure zuhaitzik garrantzitsuenetakoa izan da; hurritza bezala (*Corylus avellana*).

Lizarra bakartia da, ez duzu ikusiko lizardi garbi handirik. Bakar samar eta ura dagoen lur fresko eta aberatsetan hazten da. Urik bada lurtean, bere kasa ederki ugaltzen da, haziak haizetan hegan sakabanatzera jostatuz. Euskal Herri osoan topatuko duzu. Ez horrela bere ahizpa lizar loredua (*Fraxinus ornus*), Arabako Badaiaiko eta Arratoko mendietan besterik aurkituko ez duzuna. Lizar arruntak ez bezala, horrek loraldi ikusgarria ematen du.

Lizarretik sortzen da mana. Lizarra bedeinkatu beharrik ez dagoela badakiten sekta horretakoek goratu zuten mana. Jaki berezia da, lizarraren izerdia eraldatuz egiten dena. Uda partean azalean ebakiak egiten dira, eta horietatik zuhaitzak galduko duen izerdia biltzen da; irakin eta azukreak kontzentratuta sortzen da mana. Azukrearen ordeko



eta sendagai bezala erabiltzen da oraindik ere, batez ere Siziliako iparraldeko Madonie Parkean, eta lizar loreduetik sortzen da. Ezagunak dira, baita ere, izerdia bera hartitzen utzi eta sortzen diren likoreak. Ziburuko Luxiaenian hostoekin Lizarnoia edari sonatua egiten dute. Eta izerdiaren likorea noizko?

Lizarraren zura ere ez da saguzarraren eguerdiko doministikua. Dentsitate ertaina du, 450-860 kg/m³, kolore argia eta hari dotorea. Oso egonkorra da eta era berean elastikoa eta irmoa; gure aitonak zioen bezala, zimela, hausten zaila. Kirtenak, karroak, altzariak, aulkiak, kirolerako erraketak, palak, eskiak, eskalaproiak, belaontzietako ezpeletak, maiatzak eta abar egiten dira. Altsuma berri gazteekin, berriz, txilibituak. Su egurra eta ikatza bikainak ematen ditu.

Bere zurak soina (buila, burrun-da...) hartu edo xurgatzeko gaitasuna du. Horregatik Europa iparraldean unibertsitate eta eskola, kartzela eta erietxeetan oso erabilia da, eragin lasaitzailea baitauka.

Lizarra, bizkarrekoak emateko kirtena eta ondorengo erietxeko ohea eta aulkia. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Japoniako astigarra landatzeko oinarriko informazioa nahiko nuke.

✍ Patxi Iriz

Astigar japoniarraren izenarekin astigar espezie eta barietate asko ezagutzen da. Orokorrean hitz eginda zuhaixkak edo zuhaitz txikiak dira, bere hostoen kolorearengatik erabiltzen dira batez ere, urte osoko kolore berezi eta udazkenean hartzen dutenarengatik. Zein tamainakoa egingo den jakitea garrantzitsua da, forma hori hartzeko enbarazurik izan ez dezan eta bere dotorezia guztiaz gozatzeko. Horretarako, zehatz-mehatz zein barietate den jakitea ezinbestekoa da.

Tokia aukeratzekoan kontutan hartzeko beste baldintza argitasuna da. Ez zaio erabateko itzala gustatzen; erdi itzaletan edo eguzkitan landatu. Horretarako ere barietateak zeresana badu. Finenek erdi itzala nahitatezkoa dute.

Loreontzian baduzu, orain landatu dezakezu, baina kontutan izan aurtengo udan erruz ureztatu beharko duzula. Beste aukera duzu loreontzian mantendu, hor ere erruz ureztatuz, eta azaroa abendua aldera landatzea.

Azkar eta indarrean haztea nahi baduzu, ongarririketa ez ahaztu. Urtero azaroa aldera ongari organikoa eman bere inguruan: ez enborren aldamenen, hostoaren bueloaren parean baizik. ●

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus

MAÏA PERMACULTURE

“PERMAKULTURAZ EZER GUTXI DAGO EUSKARAZ, BAINA ARI GARA SAREA SORTZEN”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



Permacultura Ibera-k Urduñan egin zuen bileraren argazkia.

Mayi Lekuona Artola hondarribiarra duela urte batzuk hasi zen permakulturaren munduan murgiltzen, Kanadan bizi zela. “Lursail txiki bat erosi genuen han, eta hor hasi ginen baratzearekin, oiloekin... bizitza sinplearekin”, dio. Biologia eta ozeanografia ikasketen ondotik, permakulturaren inguruan interesa piztu zitzaion eta irakurtzen eta bere burua formatzen hasi zen. Urteotan han-hemen –Kanadaren ondotik Japonian ere bizi izan baita– jasotako ezagutza eta esperientziak bilduta, Maïa Permaculture proiektua jarri du martxan duela urtebete eskas. “Permakulturaren oinarritutako proiektuetarako aholkularitza eta diseinuak egiten ditut momentu honetan”.

PERMAKULTURA, ETIKA GISA

Hiru printzipio etikotan oinarritzen da permacultura: lurraren zaintza, pertsonen zaintza eta bidezko banaketa. “Printzipio horietan pentsatzen dugu edozein diseinu egiterakoan, eta hasiera batean logikoena edo errazena oinarri horiek baratzean edo lorategian aplikatzea ba-dirudi ere, berez, bizitzako esparru guz-

tietara eraman daiteke”, dio Lekuonak. Hain zuzen, haurren hezkuntzan, bizitza pertsonalean edo taldeak osatzeko orduan ere oinarri horiexek darabiltza Lekuonak.

Nekazaritzako esparrura eraman da, berriz, zertan datza permacultura? Bada, Bidarrain diseinatu berri duten baso jasangarria adibide hartuta, honela laburbildu du hondarribiarrak: “Dibertsitateari begiratzen diogu, espezie desberdin asko egoteari, eta baita baliabideen erabilerari ere. Espezie bakoitzak ematen duena kontuan hartzen da: adibidez, lurrari nitrogenoa ematen diotenak hori behar duten beste landare batzuen onurarako landatuz. Bestetik, bertako landareak erabiltzen dira, eta ongarrirako konposta”. Sistema bere osotasunean ulertzean eta kontuan izatean datza, beraz, eta horren barruko elementu bakoitza, bere funtzioen araber, ongi aukeratzean.

EUSKAL HERRIAN ETA EUSKARAZ, HASTAPENETAN

Bioterra azokan izan zen Lekuona Maïa Permaculture proiektua aurkezten, eta

hango koordinatzailearekin hizketan, konturatu ziren apenas dagoela permaculturari buruzko edukirik euskaraz; hareago, berea zen euskaraz topatu zuten webgune bakarra. “Nire helburuetako bat bada permacultura Euskal Herrian eta euskaraz bultzatzea. Tira, horretan ari den jendea bada, baina ez, esaterako, Katalunian bezalako mugimendurik”, dio. Ipar Euskal Herrian Hegoaldean baino askoz garatuago dagoela dio, baina hor ere, euskaraz, ezer gutxi.

Hutsune hori betetzeko saiakeran ari dira zenbait pertsona eta proiektu, Lekuonak azaldu digunez. Urduñako Ivan Tellaetxe, Kiribilore Permacultura Gasteizen, Aralar Permacultura proiektua abian izan zuen Victor Barahona Donostian... “Ari gara pixkanaka sarea eraikitzen, eta datorren urtera begira, gure asmoa da tailerrak ematen hasia. Azkenean, jendeak ezer gutxi daki honi buruz, eta beharrezkoa da dibulgazioa, herritarrengana iristeko proiektuak martxan jartzea”, amaitu du Lekuonak. Erronka polita, beraz, esku artean dute-na/duguna. ●

Euskal literaturari jirabiraka, feminismotik eta kolektiboan

Euskal literatur sistemako zenbait eragile feminista –editoreak, idazleak, irakasleak, irakurleak, kultur-kritikariak, eta abar– bi urtez aritu dira elkarriketan, eta prozesuak eraman ditu Literaturzale Feministen Topaketak deitzera. Sareinak taldea arduratu da horien antolaketaz, eta Gasteizko Emakumeen Etxean egingo dira uztailaren 1ean eta 2an. Topaketei buruz gehiago jakin asmoz, Amaia Alvarez Uria Sareinakeko kidearekin hitz egin dugu.

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Euskal literaturan ikuspegi feministatik aurrerapausoak egon dira azken urteetan, bistakoa da hori. Baditugu idazle handi batzuk, badugu kontutan hartzeko presentzia feminista editoriale-tan, baditugu irakurle talde feministak herrialde guztietan”. Oinarri horri balioa eman nahi izan dio Amaia Alvarez Uriak, oraindik egiteko asko dagoela iritzi arren. Duela hamabost urtetik euskal literaturaren sarea teoria feministaren jostorrazaz josten diharduen Sareinak taldeko kide da Alvarez, eta aipatutako aurrerapausoak kontutan harturik, badirudi zuzen eman dituztela puntadak. “Gure sarea, gure literatura zulatuta nabaritzen dugu eta, gehienetan, emakumeen izenak, liburuak eta lanak amiltzen dira zulo horietatik”, zioten 2007an, sortzearekin batera. Gaur-gaurkoz jostorrazteak behar-beharrezko izaten jarraitzen badute ere, bistakoa da aurrerapena, eta Literaturzale Feministen Topaketak dira bilakaera positibo horren adierazle esanguratsuetako bat.

Sareinak ari da uztailaren 1ean eta 2an Gasteizko Emakumeen Etxean gauzatuko diren topaketak antolatzen. Ohartzeke, orain hamabost urte abiatutako ibilbideak eraman ditu horretara, Alvarezk azaldu duenez. Emakumeek euskal literaturan egindako lana “ikusgarri egin, baloratu, zabaldu eta partekatze” eta periferi-

koak ziren zenbait gai literaturaren bidez erdigunera eramateko xedez, urtean behin hitzaldi edo mahai-ingururen bat antolatzen hasi ziren Euskal Herriko txoko ezberdinetan, bizpahiru idazle batuz bakoitzean. Formatu hori omenaldiekin tartekatzen hasi ziren 2017an, Marijane Minaberrri hiltzean haren omenez zerbait egitea lehenetsi baitzuten; Alduden egin zioten oroimen ekitaldia, jaioterri zuen Bankatik gertu, Adur euskara taldearekin elkarlanean. 2019an, Mayi Peloten heriotza tarteko, berriz errepikatu zuten omenaldi formatua, Baionako Zizpa gazetxean zendu berria omenduz. 2020an mahai-inguruen formatura itzultzekoak ziren, argialetxe eta liburu-denda feministak Iruñeko Katakraken biltzeko asmotan baitzebiltzan, baina pandemiak zapuztu zituen haien asmoak. Alabaina, testuinguru horretan sortu zen Literaturzale Feministen Topaketetan gorpuztuko zen hazia. “Ez genuen egin mahai-ingurua, baina euskal literaturaren sisteman eragile feminista berriak zeuden, eta bazegoen horiek saretu, elkartu eta partekatze beharra. Hala sortu ziren online topaketa batzuk”. Topaketa horiek bi urtez luzatu diren elkarriketei eman zieten bide, eta hortik jaio zen topaketa presentzialak egiteko gogo, azaleratu baitzen “euskal literaturako feministak elkartzeko eta hitz egiteko beharra”. Editore, idazle, irakasle, irakurle, kultur-kritikari... urte pareta

iraun duen prozesu horretan euskal literatur sistemaren eragile feminista ugari parte hartu du.

Topaketen bi egunak berdintsu egitaratu dituzte: goizak mahai-inguruei eskainiko zaizkie, eta arratsaldeak lantegiei, kaferako eta bazkaritarako atsedendialdiak tarteko. Topaketei irekiera emango diete sarrera ekitaldiak eta Sareinaken sortzaileetako den Iratxe Retolaza literatur-kritikari eta irakaslearen sarrera-hitzaldiak. Ostean, kaferako tartea eta gero, argialetxe eta liburu-dendak bilduko dituen mahai-inguruak hartuko du tokia, eta mahai bueltan eseriko dira Susako Leire Lopez Ziluaga, Katakrakeko Nerea Fillat eta Consonniko Maria Mur. Mahai-inguru horrek, Sareinakeko kide Gema Lasartek Hala Bediri adierazi bezala, azken urteetan euskal literaturan jazo den fenomeno bat bistaritzen du: emakume editoreen presentzia areagotu izana. “Argialetxeetan emakume editorerik ez dugu izan oraintsu arte. Eta non erabakitzen da zer publikatuko den, zer izango den edo ez den izango literatura unibertsala, zer den literatura ona eta txarra? Hori gizonetzkoek erabakitzen dute ia beti”. Bazkalosteko lantegiek emango diete lehen eguneko egitarauari jarraipena, eta parte hartzaileek aukeratu egin beharko dute aldi berean egingo diren hiruen artean: *Kritika* (Andrea Vides eta Gema Lasarteen eskutik), *Irakaskuntza* (Katixa Dolha-

re-Zaldunbidek eta Amaia Alvarez Uriak gidatua) eta *Hedabideak* (Oihana Arana eta Leire Vargasekin).


Bigarren eguna genealogien mahai-inguruarekin hasiko da. Karmele Jaio, Laura Mintegi eta Itziar Ugarte jarriko dituzte elkarrekin solasean, belaunaldien arteko elkarriketa bultzatu asmoz. Ondoren, irakurle talde feministen mahai-inguruaren txanda izango da, eta Ainhoa Aldazabal, Iratxe Retolaza eta Ines Castiella arituko dira hizlari gisa. Lehen eguneko mahai-inguruak bezala, honek ere bistaraten du euskal literaturan azken urteetan jazotako beste fenomeno esanguratsu bat, Lasarteren arabera: irakurle talde feministen indartzea. Bazkaltzeko tartearen ostean *Ilustraziotik eta Antzerkitik* lantegiak egingo dira (Maite Caballero eta Paula Estevezen eskutik lehena, eta Amancay Gaztañagaren eskutik bigarrena), jendea literaturari beste toki batetik begira jartzeko xedez. Eta eguna eta topaketak ixteko, omenaldia egingo diete Itxaro Bordari, Mariasun Landari eta Arantxa Urretabizkaiari. "Haiek abiatu zuten euskal literaturan emakume idazleen presentzia. Gehiago ere badaude -Laura Mintegi, Aurelia Arkotxa, Nerea Azurmendi, Amaia Lasa...-, baina guk gaur egun oraindik indartsu idazten ari diren hiru horiek hautatu ditugu", azaldu du Lasartek.

Topaketen helburu oinarrizkoena da bultzatzea euskal literaturaren bueltan orbitatzen dabiltzan feministak bildu eta ezagutu daitezten, behin hori lortuta harago doazen helburuak planteatzeko. Hala nola, euskal literaturaren diagnosis egitea, eta "diagnosi horretatik abiatuz zirrimarratzen hastea etorkizunera begirako helburuak, estrategia, bide-orria". Horiek lirarteke topaketen helburu nagusiak, Alvarezzen hitzetan. "Ikusi beharko da zein erronka ditugun, zer lortu nahi dugun, zein norabidetan nahi dugun arraun egin". Baikor agertu da, topaketetan parte hartuko dutenen rol askotarikoak kontutan hartuta -editore, irakurle, idazle...- diagnosi aberatsa egin daitekeela iritzirik; aniztasun horrek ahalbidetzen baitu eremu ezberdinetatik behatzea iraganari, orainari eta etorkizunari, euskal literaturaren perspektiba poliedrikoa lortuz.

Topaketak erabakigarri izango dira, beraz, euskal literaturaren norabide feminista marratzeko. Ikusi beharko da zein bide hartzea erabakiko den, baina bere aldetik, hartuko lituzkeen zenbait bide elkarbanatu ditu Alvarezk. Batetik, "betikoak" bezala izendatu dituenei

egin die erreferentzia: "Ikusgarritasuna, balorazioa, aurreiritziak eta usteak salatzea, feministen artean saretzea, elkarlaguntza sustatzea...". Baina horiez gain, aipatu du sakontasun gehiagorekin azaldu duen besterik ere: literaturaren zentzu kolektiboari balioa eman eta sustatzea. "Literaturan asko hitz egiten da bakardadeaz. Esaten da bakardadean egiten duela lan idazleak, baita editoreak ere, eta bakarrik irakurtzen duela irakurleak. Ez zaio taldeari erreferentziarik egiten. Baina idazlea ez dago bakarrik, beti ditu irakurleak, edo sorkuntza prozesuan blokatu dagoenean hitz egiteko pertsonaren bat, eta inguruan ikusten duenetik eta ikasitakotik

edaten du bere lanak. Eta irakurleekin berdin; liburua bakardadean irakurri arren, gero komentatu egiten du irakurle taldean, edo lagun artean, edo familian, edo bikotearekin, edo amorantearekin... Beraz, ikuspegi feminista batetik, talde lan hori aldarrikatzea izan daiteke hartu dezakegun bide bat". Alvarezzen begietara, liburu baten irakurketaren alderik politena irakurle gisa bizi duzun esperientzia da, eta hori aberasteko modua da esperientzia partekatzea. Zentzu horretan, Euskal Herri mailako dimentsioa duen esperientzien partekatzea izango denez gero, Literaturzale Feministen Topaketek badute aberasgarri izateko potentziala. ●



AHOTS BAT ERAUSORENTZAT

TRANS GENEALOGIA BAT

Juan van der Hamen y León margolariak 1625-28 inguruan Katalina Erausoren olioizko erretratua margotu zuen.

“Moja alfereza” izendapenaz ere ezaguna zen pertsonaren erretratuan, kargu militar horren uniformeaz jantzita ageri da Erauso, garaiko metalezko bular-oskolarekin eta oihal margul batzuekin. Albotik erretratatu ageri da, azal zurbila du, adats ertaina darama eta begirada desafiatailea du, barroko kolonialeko maskulinitasun jarrera adierazkorraz. Mihisearen goiko aldean honakoa irakur daiteke: “*Alferex Doña Catalina de Herauso*”. Cabello/Carceller artistek margolan hori artearen historiako lehen erretratu “transa” izan litekeela iradoki dute Bilbon daukaten erakusketan.

 JONE ALAITZ URIARTE  AZKUNA ZENTROA

zan ere, Cabello/Carceller (Paris, 1963/Madril 1964) artista kolektiboak Katalina Erausoren figura hartu du aztergaitzat Bilboko Alhondegian aurkeztu duen erakusketan: *Ahots bat Erausorentzat -trans garai baterako epilogo*. Artistek Paul B. Preciado filosofo eta idazlearekin elkarlanean egin duten proiektua da; azken honek, komisariotza lanak egin ditu. Cabello/Carceller-ek 1990eko hamarkadatik daramate elkarrekin lanean, artearen praktika ikuspegi queer eta ez-bitar batetik lantzen, praktika bisualetan generoa eraikitzeke modu hegemonikoak zalantzan jartzen eta kontaketa alternatibo eta kritikoak eraikitzen. Horretara-

ko, performanceak, bideoak eta argazkiak egiten dituzte eta beren praktika artistikoa idazketarekin, hitzaldiekin eta tailerrekin uztartzen dute.

Alhondegirako prestatu duten erakusketa Katalina Erauso pertsonaia konplexuaren eta enigmatikoaren inguruan hedatzen da. Erauso, 1585. eta 1592. urteen artean jaio zen Donostian, emakumezko sexua esleitu zitzaion eta Katalina izena eman zioten. Berari buruz idatzi diren biografiek diotenez, soldaduz jantzita ihes egin zuen moja-komentutik, eta Espainiako gortearantz lan egin zuen alferex gisa inperioko domeinuak Txilen eta Mexikon hedatzen. Heriotza ugari utzi zuen bere

atzean; beste askoren artean, maputxeren genozidioan parte hartzea egotzi zitzaion. Beti ere bere feminitatea ezkutatu eta izpiritu makurra erakutsita, gizon-jantziak eramateko baimena eskatu zion Aita Santuari eta honen baiezkoa jaso ondoren, Antonio de Erauso izena hartu zuen. Horregatik, eta gaur egungo begietatik ikusita, genero-trantsizioko praktiken aitzindari gisa irakur litekeen figura da Erauso.

Baieztape horrek ekar ditzakeen galdera, problematika eta kontraesanak *Ahots bat Erausorentzat -trans garai baterako epilogo* (2022) ikusentzunezkoan jorratzen dira, zalantza barik, erakusketako pieza zentrala. Bideo-lan hau ekoizpen berria da, eta bi-pantaila erraldoitan aurkezten da. Bertan, Erausoren erretratu historikoa interpelatzen duten hiru pertsona trans eta ez-bitarrak dira protagonistak: Tino de Carlos, Lewin Lerbous eta Mambi. Arestian aipatutako erretratu barrokoa medio, sexualitatea, arraza, kolonialismoa, mendekotasuna, baliabideen ustiaketa, biolentzia, gorputz ez-normatiboak, arauak eta legeak eztabaidagai hartzen dituzte eta, Erausoren ahalezko erretratu poliedriko, koral eta eguneratua marrazten dute. Hirurek ala hirurek koadroan ageri den gizonez jantzitako soldadua zuzenean interpelatzen dute, gaurkotasunetik iraganeko denbora batera, eta Erausok, Mursegoren ahotsaren eta musikaren bitartez, erantzun egiten du, “dei egidazue Antonio” errepikapenaz abesti bikain batean.



Bideo-lana konplexua da, ñabarduratan aberatsa, behin baino gehiagotan ikustekoa, izan ere testuak daukan potentzialitatea izugarria da. Halaber, interesgarria da ikustea Erausok XVII. mendean hasi zuen ibilbideak nolako jarraitasuna daukan egun. Bideoak historiako bi garai elkarrekin solasean jartzeko gaitasuna du, eta Erauso egun biziko balitz, nolakoa izango litzatekeen espekulazera gonbidatzen gaitu.

Erakusketan beste bi areto daude, bata bestearen segidan, Cabello/Carcellerren praktika formatu ugari aurkezten dutenak. Obraren muina, ordea, bera da. *Lost in Transition_poema* performatibo bat (2016) piezan, zortzi monitore ikusiko ditugu espazioan sakanatuta; erabat ilun dagoen espazioan argi-iturri bakarrak dira telebistak. Horietan, eskailera piko bat ageri da, eta bertan, maila horiek jaisten -dotore, zalantzi, sexy, temati-- trantsizionatzen ari diren pertsona ugari agertzen dira. Marcel Duchampen *Nu descendant un escalier n° 2* obraren interpretazioa dirudien lan hau Valentziako IVAM Museoan grabatu zen, deialdi bati erantzun

zioten parte-hartzaileekin. Deialdiak honela zioen: "Bilatzen dira trans, drag, genderfluid, genderqueen, queer, agenero... diren pertsonak, grabatutako performance xume batean parte hartzeko".

Alboko aretoan, argazki galeria aurkituko dugu, erretratu garaikideen galeria, zehatzago esateko. Bertan, jaiotzan genero femeninoa esleitu zitzaizen emakumeen erretratuak ageri dira, mendebaldeko zinemagintzan mugari izan diren pelikuletako rol maskulinoak antzarazten: James Dean protagonista zuen *Rebel Without a Cause*, Marlon Brando *The Godfather*-en, Brad Pitt *Thelma & Louise* filmean... Argazki bakoitzaren ondoan, fitxa bat gehitzen da, artxibo bateko dokumentazioa bailitzan.

Erakusketako zoko ugariara gramatan ezohiko ibilbidea feltrozko oihalarekin dago estalia, ehun sendo eta opakua, historiaren opakotasunaren lekuko eta esanahi berrietara heltzeko pitzadurak sortu behar direla pentsatzera gonbidatzen gaituena. Halaber, bai ibilbidea, bai aretoak, ilunak daude, obretan erabiltzen diren foku eta lan-

parak dira espazioak argizatzen dituzten argi-iturri bakarrak, eta iluntasun horrek, nolabait, Erausoren erretratu ilunarekin antzekotasunak ditu. Izan ere, iraganeko argi-ilunak nekez argitu daitezke gaur egunetik.


Gustatu zait ibilbidearen bukaera aldera markoztatuta topatu dudana gutuna. Donostiako Amara auzoan bada kale bat Katalina Erauso izena daramana. Cabello/Carceller eta Preciadok, Donostiako Udalari zuzentzen dioten gutunean kalearen izena aldatzeko eta Katalina/Antonio de Erauso izendatzeko eskari formala egiten dute. Keinu horrekin, erakusketan planteatzen diren galderak hiriko-paisaiari ere eragin diezaioketela erakutsi nahi dute, izendapen patriarkal eta bitarrak zalantzan jarrita, zaharkitua ditugun narratibak gainditzeko.

Preciadok bere hitzaldietan askotan esaten du gizartean eragiteko, akademia baino museoa duela nahiago, eremu irekiagoa eta iragazkoarragoa egiten baitzaio. *Ahots bat Erausorentzat* erakusketan lortu du -beste behin ere- ideiak eta usteak xaxatzea eta ausartagoak diren kontakizunei bidea zabaltzea. ●



LIBURUA

Historiak eta istorioak



ELKANO FUNDAZIOA

MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA JOSEBA SARRIONANDIA ETA ARES

PAMIELA, 2022

XABIER ETXANIZ ERLE

lobak “benetako historia bat” eskatu dio amamari. Konta diezaiola historia bat; amamak, unibertsitateko historia irakasleak, “benetako historia istorioekin nahasten dela” esaten dio. Eta amona-ilobaren arteko elkarrizketa luzea da Sarrionandiak liburu honetan eskaintzen diguna. Elkanoren bidaiaren kronika bitxia.


Hasieratik abisatzen digu amonak liburuetan ere gezurrak direla, eta informazio horrekin, historiak, istorioak, egiak eta gezurrak erabiliz, amonak Elkanoren bidaiaren berri ematen dio ilobari.

Gazteentzako liburua idatzi du Sarrionandiak, gazteek ezagutu dezaten zer gertatu zen duela 500 urte, nola aterra ziren hiru ontzi Magallanesen gidaritzapean merkataritzarako bide berri baten bila; nola jokatu zuten marinelek,

zenbat sufritu zuten, zenbat sufriarazi, matxinatu, eskorbutoa jasan... baina irakurleak ez du abenturazko nobela bat aurkituko orri hauetan, hori baino gehiago da amonak ilobari kontatzen diona. Arrazakeriaz, botereaz, memoria historikoaz, harreman ekonomikoaz eta beste mila kontuez arituko dira solasean amona-iloba. Sarrionandiak abentura edo itsasaldi ezagunaren kontakizuna darabil bestelako gaiez, antzinako jokabideez baina baita gaurkoaz, aritzeko. Ares ilustratzailearen irudietan ikus daitekeen bezala naoak eta gerraontzi modernoak irudi berean ager daitezke, edo Vietnameko gerran napalmez erretako neskatoa Elkanoren ontzietatik ihesi. Liburuak, beraz, irakurketa ugari eskaintzen ditu, iraganaren aitzakiarekin gaurko egoera hobeto ezagutzeko aukera.

Elkarrizketa luze bat da 160 orrialdetan kontatzen den bidaia, eta elkarrizketa horretan amonaren kontakizunaz gain ilobaren galderak, komentarioak eta gogoetak ageri zaizkigu amonaren erantzunekin, ekarpekin, gogoetekin batera.

Irakurlea gustura murgiltzen da kontakizunean, bitxikeriak (Elkanok erregeari desobeditu ziolako eman zion bira munduari, esaterako), datu historikoekin edo itsasaldi baten abenturarekin ageri zaizkigu. Baina hori bezain interesgarria da amonaren eta ilobaren arteko harremana; gaztearen jakin nahia, iragana eta oraina ezagutzeko duen grina, eta sentimendu horrek eramaten du amona istorioa kontatzera, historia erakustera. Eta gu, haiei begira, disfrutatzen narrazioaz eta Aresen irudi paregabeaz. ●



MUSIKA

Hauskorra da uzta berria



XUBAN ZUBIRIA

Krisi pandemikoa ere izan da birsortzeko aukera berri bat, halaxe erakutsi du Usurbilgo Odolaren Mintzoa taldeak. Normaltasunari iseka egiten dion lana, su txikian ondu dute *Hauskor* Andoaingo Garate estudioetan. Kaki Arkarazoren laguntzarekin findu diren 8 kanta biltzen ditu.

Taldearen sorrerari erreparatuta, musikak elkartu aurretiko lagunak direla esan behar da. Musikaltasun ezberdinei tiraka, doinu eta errimak nahasteko anbizio argiarekin, erritmo azkarrek lagundutako melodietan bilatu izan dute ahots propioa. Erroan, baina, beti egon da hitza, esanahia eta mintzoa.

Apenas etenik ez duen diskoa da *Hauskor*. Orain arte egindakoarekin hautsi baino egin dutenaren gainean auzartzeko jauzia da. Erritmo eta errepika zuzenak herentzian, berritasun musikal eta estetiko nabarmena proposatzen du.

Laukotearen lagun Ixak Arruti – Men-

deku Itsua, Izerberg, La Regadera... – gitarra-jotzailearen punteo zorrotzekin, *Burua tente* kantak heteronormari hozka eginez ematen dio hasiera diskoari. Erritmoari eutsiko balio bezala, taldea bera biluzteko saiakera da *Biluzik*, gitarra doinu alaiagoekin datorrenaren bezpera modukoa.

Azken hondartzak kantak lehen instantetik harrapatzen du. Pisu poetiko handia duen letra, “azala azalaren kontra”, somatzen du entzuleak gitarra helduen artean Serge – Eraso, Serge... – artistaren ahots indartsua agertzen den aldiro. Diskoko kanta indartsuenetako bat da, harrapatua dagoen entzulea are gehiago interpelatzen duen musikaltasunagatik.

Agertokia bereganatzeko pultsioz, ahotsarena baino gitarren protagonismoa nagusitzen da *Eredu berrian*, publikoak irabaziko duen proposamena. *Ispiluak* egunerokotasunari zentzu pe-



HAUSKOR ODOLAREN MINTZOA

EGILEA EDITORE, 2022

simistago batean hitz egiten dio, soinu ilunagoak izanagatik leherkariagoak diren gitarra eta batera soinuek disko-proposamen ausartena egiten dute, Katearekin batera.

Dos pueblos, una vez: 90eko hamarkada hasierako Uruguai. Filtroko gertakarien bozgorailu, hasieratik amaieraraino aldarrikapenari musikak ematen dion eferbeszentzia mantentzen du. Diskoari beharrezko balio erantsia ematen dion aitortza ariketa. *Katea* dator ondoren, entzulea esfera abstraktuago batera eramateko. Soinu europarrago bat, agian; bide originalagoak jorratzen ditu.

Amaieraren alegoria gisa, balada zantzuekin ixten du diskoa *Azkenak*. Bideoklipa egiteko aukeratu dute, sarean dago ikusgai. *Etsipenaren urka* zioen 2017an kaleratu zuten diskoak. Izan dadila Hauskor hitza eta esanahia, areto zein belarriak asebetetzeko enegarren aitzakia. ●



Mahaiaren bueltan familia bat

AMETS ARANGUREN ZOE MARTIKORENA

Eugenio Agirre Alvarezen hilotzak Atarrabiako Udaletxe plazatik kultur etxerako bidea egin du alaba eta biloben sorbalden gainean, bandera gorria hilkutxan zabalik, hamarnaka jende bere gorpuren atzetik. Hortik aurrera-koa, lau paretaren artean pasa da.

Agirretarren bandera Oskorriren kan- tu batez harago, antzezlana da ere orain, Ekida arte ekimenaren eskutik aurkez- tua. Bi ahizpa, haien hiru seme-alabak eta hauen aitaxiren heriotzak utziriko ondare materialaren kudeaketa esku artean, mila faktore medio.

Ekidak eta, orokorrean, Mugimendu Sozialistaren edozein adarrek diseinatu- rikoaren estetika txukuna ezin da aipatu gabe utzi. Oraingo honetan ere asmatu dute: soil eta dotore. Argi gehiegirik ez, kolore gutxi batzuk oholztan eta musika zuzenean: Eñaut Zubizarreta *Trigger* ce- lloa eskutan eta *looper*-a oinetan, hor ere gutoxiago askotan gehiago dela erakutsiz.

Antzezlanak panfletotik badu berea, baina ez dut uste Ekidako kideek hori ez- kutatzeko asmorik dutenik batere. Zen- tzu horretan, piezak ez du deus berririk kontatzen, edukian ez dago sorpresarik. Bai, aldiz, formatan. Lehen aldiz egin du mugimendu sozialistak publikoki zer- bait umoretik eta horrek sinesgarritasun puntu gehigarria ematen dio haien jar- dunari. Tonuaz aparte, bestelako erre- kurtsoek aberastu dute antzezlana: koro hautsi baten presentziak eta bandera/ mantelaren tratuak. Edo, hobe esanda, amen eta seme-alaben arteko bandera/ mantelarekiko tratu diferenteak. Nork izan du, bi belaunaldien artean, dena errazago? Nor borrokatu behar izan da gehiago bere etorkizunaren alde? Zer da orain hautatu dezakeguna? Horren guztiaren gainetik argi dute gazteek: si- nistea ez da berme, baina bai baldintza. Eta geldirik dagoenari hautsa ateratzen zaio.

AGIRRETARREN BANDERA

NOIZ: ekainak 16

NON: Atarrabiako Kultur Etxea

Eszena eta eszena arteko trantsi- zio gisa agertu zaigu batzuetan koroa, koro hautsia. Badu Oier Zuñigaren *Eresia* antzezlanetik pixka bat honen kokapenak. Koro hautsia koro oso bihurtuko da mila gorputz ahots baka- rrez mintzatuko direlarik, baina dena zailtzen du hori nola egin jakinen zue- na hil berria izateak. Keinu egin diote imaginario kolektibo zehatz bateko zenbait erreferentziari: entzun ditugu *Eusko Gudariak* eta C Tangana eta ikusi dugu Cristiano Ronaldoren mugimen- du ospetsua. Azken biak umorearen bueltan. Horiek bakarrik harrapatzera heldu naiz ni.

Ezagutu gabe ezin daiteke aurrera egin eta oroitzapenek ez dute gorputzik. Ez nuke trama gehiegi biluztu nahi, bai- na familia honetan ere beste askotan bezala bukatu dute: isildutakoak errepi- katzen. Noiz arte? Etxe guztietako man- telak bandera izan arte. ●



Hitz gezidunak

ASTINALDIA MODUZ	GEHIENETAN LAMA	ZEUKAN	DANI BLANCO		PERTSONAIA IDEALIZATU ZUHAIXKA LEKADUN, ISATS	ORRI MEHE SAMURTASU- NEZ	USADIOAN ESTUTZE, TINKATZE
NAFARROAKO UDALERRIA GAUERO EGIN OHI DUGU	HERRI HIZKE- RAN, ZER ZIPREKO HERRITAR	IZOTZ PILOTURIK GABEKO AIREONTZI TXIKI	ZERBAIT ONURAGA- RRIA IZAN KAPOI	PERTSO- NAIAREN ABIZENA PARTAIDE	URKABE ZUBEROAKO HERRIXKA	LEKU ATZIZKIA "TOLOSA, MORAU"	ERABAT LASTERKA
IZENEN ZERRENDA KONPARAZIO PARTIKULA	RIAD-EKO HERRITAR PERTSO- NAIAREN IZENA	KOTOIZKO EHUN FIN IGITATZEA	INDIAKO HIZKUNTZA BOTIKA BATEN KANTITATE	DU, NIRI HARAGIAREN MINTZA	OXIGENOA ARTSENIKOA		
METAL ZURIXKA DISTRIRATSU	AUSART, BIPIL NAFARROAKO HERRIA	SAILA KONTSONAN- TE ERREPIKA- TUTA	INOLAKO ZAKUR	HAURRAK, UMEAK ALFABETOKO AZKEN LETRA	AISATU ADITZAREN ERROA		
BIGARREN MUSIKA NOTA SAI	EZKAI SORTZERA BEHARTU						

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

3		8	9	4	5	1		2
	4	1	2	3			7	
		6	7			9	4	3
			6	9				8
	6				2	3		
4			3		2			9
	1	3	8				2	6
	5	2				7		
6			5		7	3		

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Kolpe baten onomatopeia.
2. Martxan.
3. Potasio nitrato naturala
4. Berdin
5. Janari kopurua (pl).

EBAZPENAK

1. PANPA
2. ABIAN
3. NITRO
4. PARRA
5. ANOAK

3	7	8	9	4	5	1	6	2
9	4	1	2	3	7	8	5	6
5	2	6	1	3	7	9	4	8
7	1	3	8	9	4	5	2	6
4	8	5	3	7	2	2	6	1
1	6	9	4	5	8	2	3	7
2	3	7	1	6	9	4	5	8
5	2	6	7	8	1	9	4	3
9	4	1	2	3	8	7	5	6

V	A	S	I	A	V	I	Z	A	R	A	R	R	O	R	S
K	A	V	I	N	E	S	T	O	B	R	R	V	X		
O			G	O	N	O	N	I	N	E	R	E	P	U	P
T			D	A	D	A	G	I	D	A	S	E	R	E	
I			N	D	I	H	O	I	O	N	O	K	R	I	Z
L			K	A	L	R	E	R	P	O	J	I	P	I	
N			V	A	N	D	V	D	I	V	R	N	I	V	H
V			R	K	A	U	R	G	I	D	E	G	N	Z	I
I			N	E	N	M	O	K	L	E	Z	Z	O	L	
V			I	P	A	T					U	I	U	P	
S			T	S	V	I	G				Z	V	S	I	G
U			P	M								M		J	

Sonia Encinas

KOMUNIKATZAILEA ETA
SEXOLOGOA



EMETASUN BASATIA

“Betidanik izan dut sexuarekiko jakin-mina. Ttikia nintzenez argi nuen tabua zela eta nire adineko lagunek irakurtzen ez zituzten sexuaren inguruko kontuak kontsumitzen goiztiarra nintzela. Nolabait aitzindaria izan nintzela gai intimoez solasten. Garai hartan ez nekiena zen gerora, emakume, bikote eta taldeak artatuko nituela euren sexu hazkundean. Baina bai, modu batean edo bertzean sexualitatea betidanik egon da presente nire bizitzan, baita panpinekin jostatzen nintzenez ere: oroitzen dut euren artean harremanak izaten zituztela, afektiboak eta sexuak. Kazetaritza ikasketak bukatu nitue-nean generoaren inguruan espezializatu nahi izan nuen, eta sexologia eta generoa uztartzen zituen master bat burutu nuen. Horrela konkistatu ninduen sexologiak eta hemen gelditu naiz”.

“Ahaldundu gabeko emakumea errentagarriagoa da sistema kapitalistarentzat”

Feminidad salvaje (Feminitate basatia) eta *El niño que quería dar abrazos* (Besarkadak eman nahi zituen mutikoa) liburuekin egin du debuta literaturan Sonia Encinas (Madril, 1987) komunikatzaile eta sexologo feministak. Bi liburu horietan emakumeon sexualitatearen tabuarekin amaitzea eta gure semeentzat maskulinitate anitzen erreferentziak sortzea da bere erronka nagusia.

 SAIOA BALEZTENA  DAVID F. SABADELL

Sexu hezkuntza boterea dela diozu. Zergatik?

Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte sexualitatea gure bizitzetan presente dagoela kontutan hartuta, gure mugarri nagusietakoa da. Baina sexuak tabua izaten jarraitzen du oraindik, eta sistemak jartzen digun hesi hori garaitzea ezinbertzekoa da boterea berreskuratzeko. Sexualitatea informatuta bizitu behar dugu, sinesmenak eta mugak alde batera utziz, ongizatea eta osasuna bermatzeko.

Feminidad salvaje liburua hasten duzu mezu argi batekin: “Geure sexu ongizateari hautsa kendu eta lehentasuna emateko, ezinbertzekoa da isiltasun mendeak alde batera uztea”.

Noski. Emakume guztiak sexu ongizateari lehentasuna emateko gai gara, baina hori lortzeko bidea luzea da. Sexuaren inguruko desinformazioa eta isiltasuna mende anitzetan luzatu da, eta hori gainditzeko erabakigarriak dira denbora, exigentziarik eza eta mimoa. Gainera, sexu ongizatea ongizatearen parte da eta,

zoritarrez, gizarte honetan ez dugu ongizateari tarterik uzten. Horregatik, hori lortzeko, kanpotik jarri dizkiguten egiturak hautsi behar ditugu.

“Emakume sexualak sistema gogaitzen du”, diozu. Zergatik?

Jakina. Emagaldu, puta eta urdangaren estigmak pisu ikaragarria izaten jarraitzen duelako oraindik. Eta estigma hori da, bertzeak bertze, emakumearen sexualitatearen kontrako kontrol baliabiderik ohikoena. Ez hori bakarrik; sistemari ez zaio interesatzen emakume sexuala, ahaldundu gabeko emakume bat anitzez errentagarriagoa delako sistema kapitalistarentzat.

Zer erran nahi duzu?

Saldu digute emakume gisa maila batean egon behar garela. Emakume batek maila horretan ez dagoela sentitzen duenean, kanpoan bilatu du bere baitan faltan somatzen duen hori. Halaxe hezi gaituzte. Eta sexualitatea ere modu horretan bizi dugu: plazera sentitzea merezi ez dudala pentsatzen badut, kanpoan



“Emagaldtu, puta eta urdangaren estigmak pisu ikaragarria izaten jarraitzen du oraindik. Eta estigma hori da, bertzeak bertze, emakumearen sexualitatearen kontrako kontrol baliabiderik ohikoena”.

bilatuko ditut politikoki zuzenagoak diren estimuluak. Tira, jakina da emakume eredarriak bere burua bukaerarako uzten duela beti, zaintzailea dela...

Sare sozialetan sexualitateaz gehiago hitz egiten da azkenaldian. Gauzak aldatzen ari dira?

Argi dago gaur egun badugula sexualitateaz askatasunez solasteko espazioa eta azken hogeitaz garapena egon dela zentzu horretan. Baina, hala ere, sexualitatea ulertzeko nire moduarekin talka egiten duten diskurtsoak nagusi dira oraindik. Mugimendu feministaren baitan ere, emakumeon adierazpen sexualen kontrako diskurtso zigortzailea nagusi da oraindik.

Eurovision jaialdian Espainiaren ordezkari izandako Chanelekin gertatu zenaz ari zara, adibidez?

Bai, hain zuzen ere. Beti bezala, emakumeak jo puntuan gaude, gozaten dugulako edo ez dugulako gozaten, gorputza erakusten dugulako edo ez dugulako egiten... Baina beti gaude seinalatuta, zaila da bizipenaren eta adierazpen sexualen konplexutasuna jasotzen duten diskurtsoak aurkitzea.

Amatasunarekin ere gertatzen da. Historikoki deserosoa izan da feminismoarentzat...

Nik ez diot feminismoari eskatzen modu homogeneoan pentsatzea. Pertsonalki, bai amatsunari zein sexualitateari dagokionez, nire argudioekin desberdintzen diren abiapuntuetan gogoetarako mezu interesgarriak aurkitzen ditut. Mugimendu feministak milioika lagun elkartzen dituela kontutan hartuta, ez da errealista iritzi bakarra egotea. Polarizazio politiko handiko testuingurua bizi dugu eta feminismoan ikusten dut kanpoan gertatzen denaren isla.

Tira, gatozen berriz zurerara. *El niño que quería dar abrazos* ipuina argitaratu berri duzu. Noiz eta nola jaio zen proiektua?

Instagramen behin idatzi nuen gure semeak feminismoan heztearen erronkaz. Testu hura birala egin zen eta argitalpen proposamen bat jaso nuen haurrentzat feminismoaz idazteko. Izan ere, eurentzat ikuspuntu feminista duen literatura falta da. Nik nire esperientziak solastu nahi izan nuen, beti egiten dudana bezala. Etxean nire semeak zereginen banaketa berdinzalea ikusten du, hazkuntzan

inplikazio berdina dugu, baina etxetik kanpo jasotzen duen ikuspuntu desberdina emango dio. Ikusten dituen marrazki bizidunek bezala. Eta eremu horietan guztietan oraindik ere genero estereotipoak errepikatzen dira. Liburuan, azkenik, maskulinitateaz solastu naiz, garrantzitsua iruditzen zaidalako mutil bezala hazten den haurrak jakitea ez duela zertan kaxa jakin baten barruan egon behar beti, desberdina izan daitekeela.

Zein da erronka nagusia emakumeok sexualitate feminista bizitzeko?

Begirada feministaren bitartez sexualitateaz errurik gabe gozaten hastea. Euren burua erdigunean jartzea, gizonen sexualitate heterosexuala alde batera utzita.

Eta bukatzeko, zein da gako maskulinitate anitzak bermatzeko haurrengan?

Haurren sentikortasuna besarkatzea. Eta horretarako heziketa ezinbertzekoa da, gauzak errotik aldatzeko. Begirada datozen belaunaldietan jarri beharra dago, euren emozioak ikuskatu eta espresatzeko heziz. ●

Irungo alardea eta Braveheart nafarra

 **GORKA BEREZIARTUA MITXELENA**

Zigarro mentolatuak, Dire Straits taldea eta “dabuten” esaten zuen jendea iraganeko kontuak dira. Inork aldarrikatzen ez duen iragan batekoak. Bazkari familiar batean zure osaba inoiz marxosoak ekarriko ditu gogora eta horri esker jakingo duzu existitu zirela. Are, erretzen, entzuten eta esaten zituzte la horrelako gauzak, inpunitate osoz. Informazio horiek ezagutu ondoren geratuko zara, gutxi gorabehera, aurretik zeunden bezala. Agian gogoia izango duzu galdetzeko zigarro mentolatu horietako batekin porroak nola geratzen ziren, baina galdera onak, ai, beti datoz burura formulatu zitezkeen momentua pasa ondoren.

Modaz pasatako gauzez ari gara gaur orduan. Aipa dezagun beste bat: Irungo San Martzial eguneko alardea iristen den bakoitzean berpizten den momia diskurtsiboa. Ez dagoela zer ospatu, Nafarroako Erresuma berreskuratu nahi zutenen aurkako garaipena izan zela duela 500 urtekoa; beraz, guk galdutako bataila bat ospatzen dela; eta hori okupazioa eta zapalkuntza goratZZZZZZZZZZZZZZZZ. Ui, barka, begiak pixka bat bildu eta seko geratu naiz. Harira: kantziño hori entzuten hasi nintzenetik iruditu izan zait eskapismo ariketa bat, alardeekin dagoen gaur egungo debatean sartu ordez –ea emakumeek eskubidea duten gizonak bezalako presentzia publikoa edukitzeko edo zer-, iraganaren poltronan hankak zabal-zabal eginda geratzeko modu bat.

Baina eske gainera, kontuaren xehetasunetan sartzen bazara –Peio J. Monteanoren *La conquista de Hondarribia* liburu ona da horretarako–, dezente urardotzen da zenbaitek gudu horrekin



buruan montatuta daukaten “irundar espainol salduak vs. Braveheart nafar abertzaleak” pelikula. Hasteko, batailan alemaniar gehiago zegoen uda honetan Mallorkan egongo direnak baino: 3.500 lanskenet guztira.

Pieza galantak omen ziren mertzenario alemaniar horiek, portzierto: garai hartan jendea hiltzeko zegoen teknologiarik puntakoena. Horregatik azpikontratatzin zituzten monarka guztiek. Pareko espaloiko erregeak lanskenetak dauzkala? Ni ez naiz gutxiago izango. Lanskenet bati aurre egiteko ez zegoen beste lanskenet bat erabiltzea bezalakorik. Irundarrek duela bost mendeko kontu honekin hainbeste flipatzen badute, arrazoiak hori da: ez zela ohikoa hiltzaile profesionalen Bayern Munichek partidu bat galtzea nekazari armatuz osaturiko Real Unionen kontra.

Badaude beste detaille txiki batzuk ere, pentsarazten dutenak 1520ko ha-

markadan Behe Bidasoako jendea ez zela kriskitinak jotzen hasi, ezta biribilketa alegeran ere, tropa franko-nafarrak iritsi zirenean. 2.000 lagunek alde egin zuten Irundik Gipuzkoako beste herri batzuetara, kiskali zizkieten etxeak, urratu zizkieten arropak, konfiskatu utzak eta aziendak, goseak hiltzeko zorian utzi... eta itzultzeko aukera ere, erregeri leial izango zirela zin egin ondoren lortu zuten –Frantziako erregeri, alegia–.

Gauza hauek ikusita, iruditzen zait historia asko bihurritu behar dela Irungo ospakizunaren aurka narratiba nafar-indepe batetik egiteko. Agramondarrok, entxun, lagundu nahi disuet: igual hobe San Ignazio egunarekin jartzen bazarete, hor bai dagoela materiala mundu guztia dantzaz jartzeko. Eta ezin bada dantza egin, ez da nire karlistada –edo nola zen esaldia?–. ●



Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diozu Bilboko Mbolo Moye Doole elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

 ARGIA Azoka

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

Bidalketa gastuak 5 € eta 40 €-tik gorako erosketetan, bidalketa doan.
Hemendik aurrera erosketak BIZUM bidez ere ordaindu daitezke.



2 URTE ARGIA BIZIKLETAZ BANATZEN

GASTEIZ
DONOSTIA
IRUÑEA
HENDAIA
IRUN
HONDARRIBIA



ZER EGIN DEZAKET?

Zure herrian halako banaketa sistema bat
sustatzeko aukerarik ikusten baduzu,
jarri gurekin harremanetan:

komunitatea@argia.eus (+34) 943 37 15 45